



El Banquete-ren egileekin solasean, CANen espoliazioaz

“Arduradunek jakin dezatela haiengandik gertu gaudela”

Fermin Etxegoien:
“Euskarazko
bizimoduaren mugez
eta nahiez gogoetatu
dut liburuan”

**Bake eta bizikidetzaz
jardunaldiak.
Lau biktimaren
testigantzak**





Egunero lan berriak sareratzen ditugu
1.300 bideo baino gehiago ikusgai




Erreportajeak

Bost minutuko bideoak. Gai mamitsuak era argian azalduta.



Elkarriketak

Zer esana eta pentsatua ematen duten pertsonekin solasean.




Argazki galeriak

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.




Ekitaldiak

Ekitaldi interesgarriak klik batean, baita nazioartean emandakoak ere.



Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.




Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpitituluekin.



Solasaldiak

Gai zehatzei buruzko eztabaidak, hitzaldiak eta mahai-inguruak, gogoetarako material gisa.



Bideo herrikoiak

Euskal Herrian jendearen ekimenez egindako bideoen biltokia.



Azaleko argazkia:
JOSU SANTESTEBAN
Azala: ANTZA
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



ARGIAKO edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.eus: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produksioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetzak: Iraitx Agirre. Salmentak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Sorraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus. Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxa: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163. Faxa: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: GaztelukoPlaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetzak: harpidetza@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus. Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Euskal Herria: 145 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

NON ZER

2015eko otsailaren 22a, 2.450. zenbakia

ASTEKO GAIA

UR HORNIKETA Uraren zientzia eta kontzientzia.
JOXERRA AIZPURUA SARASOLA / 4

PERTSONAIA

SABIN EIZAGIRRE: «Berrehun urte barru ere lehengo lepotik burua ibiliko dira Venezuelan». MIEL A. ELUSTONDO / 10

GAIK

AMARAUNA Jolasa kalera ateratzea xede.
NEREA IBARZABAL SALEGI / 16

IRITZIAREN LEIHOA

GREZIARREN PATUA BALEREN BAKAIKOA AZURMENDI / 18

GIRO NAHASIAN JAKES BORTAIRU / 20

%100 NAFAR BIXENTE SERRANO IZKO / 21

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENTA / 19

TXANDAN Kitigan zibi. ITXARO BORDA / 20

BERTSO BERRIAK Okelarri agurra. JON AZPILLAGA / 21

ZIRTA Krimen bat idatzi da. ANGEL ERRO / 22

ERDIKO KAIERA

FERMIN MUGURUZA: «Autogestiotik nator eta hortik joko dut beti». MIEL A. ELUSTONDO / 23

GEUK ETA EKKI Kulturaren ekosistema berrasmatzeko haziak.
GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / 28

LITERATURA ARITZ GALARRAGA / 28

MUSIKA IKER BARANDIARAN / 29

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO / 30

ALEA Hegorik gabeko amodioa. MYRIAM GARZIA / 31

OSASUNA JABIER AGIRRE / 32

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 33

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 34

TERMOMETROA

CAN-EL BANQUETE-REN EGILEAK: «Nafarroa basamortu bihurtu dute hainbat belaunalditarako». XABIER LETONA / 36

BIZIKIDETZA Bake giro eskasa oraindik ere.

MIKEL ASURMENDI / 40

FERMIN ETXEGOEN: «Nola da posible inoiz baino gehiago izatea, eta bukaeraren hasieran egotea?».

MIEL A. ELUSTONDO / 42

LAURA PEREZ: «UPN, PSN eta PPN behingoz alboratzearen alde gaude». XABIER LETONA / 46

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL HSBCtik gobernura, kortsarioek eskuak edozertarako libre. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Uraren zientzia eta kontzientzia

Uraren garrantzia gizakiontzat ez da oraingoa, eta ondorioz kudeatu egin behar izan dugu beti. Orain bi mila urte erromatarrek akueduktuak egiten zituzten ura garraiatzeko, eta guk tutueria sareak erabiltzen ditugu horretarako; bizitza uraren inguruan antolatzen dugu. Ura hartu, erabili eta bota egin dugu urteetan, mendeetan barrena. Gaur, xahutzeari uztea eta berarekin orekan bizitzea baino ez zaigu geratzen.

| JOXERRA AIZPURUA SARASOLA |

EUSKAL HERRIAN, oro har, gure elkarriketa gaien artean ura aipatzen denean, euriak edo eguraldiaz ari garelako izan ohi da. Lehorte bolada heldu izan denean ere, eragin handiagoa izan du baratzetan, gure etxeko kaniletan baino. Beraz, kaniletatik sartzen zaigu ura etxean, eta harraskatik nahiz beste zuloetatik ateratzen, beti, erregulariki, eta ez zaigu aparteko kezkarik sortzen.

Jakin badakigu urtegiak, araztegiak, ur tutueriak, buxadurak eta ihesak kudeatzen dituzten enpresa publikoak edo erdi publikoak badirela, eta halaber, ur zerbitzuengatik faktura jasoko dugula etxean periodikoki. Ipar Euskal Herrian Hegoaldean baino lauzpabost aldiz gehiago ordaintzen dira ur zerbitzuak, eta Europako Batzordeak uraren kudeaketaren alorrean aholkatutakotik hurbilago daude prezio horiek, Hegoaldekoak baino, nahiz eta batek baino gehiagok harridura adierazten duen errealitate horren aurrean.

Nola liteke naturak doan eskaintzen digun produktu bat erabiltzeagatik, demagun lau lagunez osaturiko familia batek 40-50 euro ordaintzea hileroko Iparraldean eta 8-10 euro baino ez Hegoaldean? Urtegiak, tutueriak, araztegiak eta uraren tratamendua, esaterako, ez al dira antzekoak?

Urari lotutako zientziak eta teknologiak ez dute lurraldeen artean dauden prezioen aldea justifikatzen. Aldiz, uraren erabilera neurtuak, urarekiko errespetuak eta azken finean naturari kentzen dioguna ahalik eta egoerarik txukunenean itzultzearen kontzientziak gure patrikak gehiago edo gutxiago hustu behar izatea eragiten dute. Eta kontzientzia aipatzen dugunean ez gara norbanakoen jarrera soilaz ari, gizarte osoaren jarreraz baizik, norbanakoenaz, udalenez, gobernuenaz eta enpresenaz.

Ondoko lerroetan uraren osotasuna azalduko dugu eta horretarako Donostiako Eskola Politeknikoko irakasle eta ikerlaria den Jabier Almandoz doktore ingeniariaren laguntza izan dugu. Esan gabe doa gure azterketan ur edangarriaz jardungo dugula, urari alderdi askotatik hel bageniezaioke ere.

Ikuspegi orokorra

Azpiegituren gaineko ikuspegi orokorra azaltzeko, uraren inguruko hiru kontzeptu behartuko ditugu: harguneak edo iturriak, hirien barneko banaketa-sarea eta erabilitako urak.

Hiritarrontzat uraren “produktzioa” harguneetan hasten da, hau da, urtegietan, ibaietan edo ur putzuetan. Oro har, Euskal Herriko hargune kopurua nahikoa da egun dagoen populazioa asetzeko. Araban eta Nafarroan ditugu urtegiak handienak, eta beste zenbait eskualdetan daudenekin batera, nahiko ur pilatzen da.

Urtegietatik hirietarako tutueria eta ponpaketa sarea ere baldintza onetan dago, batez ere azken hogeitaz urteotan egindako lanei esker; adibide bat jartzearen, gaur egun urtegietatik ateratzen den ia ur guztia heltzen da hirietara, 80ko hamarkadan, ordea, ia erdia galtzen zen bidean.

Azpiegitura horiek direla medio, Euskal Herriko hiri gehienek ongi egiten diote aurre lehorte boladei, baina badaude salbuespenak, eta deigarrienak ura soberan dagoen lekuetan gertatzen dira askotan; adibidez, Nafarroa iparraldeko hainbat herritan uraren harguneak ez dira planifikatu hamarkadetan eta lehorte garaian egoki erantzuteko ezintasuna dute.

Urak hirietara ailegatzean, ur deposituak, ponpaketa guneak eta banaketarako tutueria aurkitzen ditu. Maila horretako azpiegiture-





tan ere, hiriek azken hoge urteotan hobera egin dute oso. Egoera orokorra, beraz, nabarmenki hobea da, hiri batetik bestera alde handiak daude ordea. Desberdintasuna neurtzeko zenbait parametro erabili ohi da, eta ikuspegi orokorraz jabetzeko, balantze hidrikoa delakoa baliatzen da; hau da, hiri batera heltzen den uraren eta kontsumitzen den uraren arteko erlazioa neurtzen duena. Hego Euskal Herriko hiriburuetan, eta partzuergoak edo mankomunitateak uraren kudeatzaile diren neurrian, balantze hidrikoa %80tik gorakoa da. Aldiz, hiri ugaritan %50 inguruan dabil oraindik. Non galtzen da ura? Nagusiki horren errudun ihesak baldin badira ere, badira anitz lekutan ur lapurrak ere, hau da, ur kontagailurik gabe kontsumitzen dutenak. Balantze hidrikoari buruzko datu batzuk emate aldera, Gasteizen %85 ingurukoa dute, eta Donostian, batez beste %80koa. %100eko balantze hidrikoa ezinezkoa dela esan liteke eta %95etik gorakoa duenik ere nekez aurkitzen da.

Aipatu dugun indizearen barruan ura banatzeko azpiegitura eta logistika dago, hau da, zer-nolako tutueria-sarea dagoen auzo bakoitzeko, tutuek zenbat urte dituzten, zein materialez eginda dauden, zenbatean behin berritzen diren, zenbat lagun jartzen diren

Ezkerrean, Añarbeko urtegiko presa. Eskuinean, goian, Donostiako ur depositua; behean, hodi buxatua.

horretara lanean, zer non eta nola jarri behar den pentsatzen ote den, zer aurreikuspen egin daitekeen...

Azkenik, erabilitako uren berri ematea dagokigu. Urok araztegitara bideratzen dira; horietan behar bezala tratatu ondoren, ura ibaietara edo itsasora isurtzen da. Ur edangarriaren azken fase honetan izugarri aurreratu da azken 30-40 urteotan, urrun utzi baititugu ur zikinak (eta bestelako zaborrak) zuzenean ibaietara eta itsasoetara isurtzen genitueneko garaiak. Hala ere, badugu oraindik zer hobetu, haxe baita uraren katean kate-begirik ahulena.

Laburbilduz, Euskal Herriko ur edangarrien azpiegiturak hobetu egin dira esponentzialki azken 20-30 urteotan, eta beraz, lan faraonikoen etapa amaitutzat eman beharko litzateke datozen urteetan. Aurrerantzean, dagoena hobetzea, kudeatzea, eguneratzea, planifikatzea eta ingurumenarekiko egoera jasangarria mantentzea izan beharko lukete erronka nagusiak.

Ura bizitza da

Topikoa badirudi ere, uraren inguruan bizitza dagoela gogoratu beharra dugu ezinbestean. Ibaiei ura gure probetxurako kentzen diegunean, ekosistemetan eragiten ari gara, gutxi edo gehiago.

Goutte à goutte Gaspillage 35 m³/an.		Mince filet d'eau Gaspillage 140 m³/an.		Filet d'eau Gaspillage 550 m³/an.		Fuite WC Gaspillage 220 m³/an.		Écoulement continu Gaspillage 0 à 550 m³/an.	
Désignation des rubriques		Volume	Prix unitaire	Montant HT	TVA	Montant TVA	Montant		
Détail de votre facture	*EAU CONSOMMATION	32	1,0146	32,47	550	1,79	34,26		
	*POLLUTION	32	,3391	10,85	550	,60	11,45		
	*ASSAINISST. CONSOMMATION	32	,6390	20,45	1000	2,05	22,50		
	LOCATION ENTRETIEN RELEVÉ COMPTEUR			19,58	2000	3,92	23,50		
	FACTURATION ENCAISSEMENT DE L'EAU								
	*PRIME FIXE EAU			31,36	550	1,72	33,08		
	*ABONNEMENT ASSAINISSEMENT			46,54	1000	4,65	51,19		
	*MODERN.RESEAU COLLECTE	32	,2300	7,36	1000	,74	8,10		
DECOMPOSITION		TAUX TVA	MONTANT HORS TAXE	MONTANT TVA	MONTANT TTC	TOTAL FACTURE		184,08	

Ikusi Hendaiaiko (goian) eta Astigarragako faktura hauetan kontsumitutako ur kantitate berdinagatik zer ordaintzen den batean eta bestean. Batez beste, Ipar Euskal Herrian bospasei aldiz gehiago ordaintzen da Hego Euskal Herrian baino.

Ura hirietan barrena barreiatzen dugunean, eta gure bizimodua ziurtatzearekin batera industriaren antolamendurako ere baliatzen dugunean, ura naturari egoera onean itzultzea da egin dezakegun gutxienekoa. Baina ez da horrela gertatzen. Bestela esanda, ahalik eta kudeaketarik onena egin beharko genuke, ahalik eta gutxiena hartu, ahalik eta garbien itzultzeko.

Nola egin liteke hori? Hasteko eta behin, ahalik eta gutxien hartzeko, ahalik eta gutxien kontsumitu behar dugu. Auzuneetako tutueria sareak beharrekiko proportzionala behar du izan, eta sarearen gainean eguneratze estrategia antolatu behar da. Beraz, gizakion borondatearekin batera, lurpean dugun

Factura epea / Periodo factura	Egungo irakurketa Lectura actual	Aurreko irakurketa Lectura anterior	Aldera Diferencia	Kontsumoa Consumo
01-04/30-06-2014	6.501	6.469	32	32
Kontzeptua / Concepto	Zenbatekoa Importe	%	B.E.Z. I.V.A.	Guztira Total
Ura guztira/Total agua	21,36	10	2,14	23,50
Kuota finkoa/Cuota fija	6,000			
Kontsumoak/Consumos 1 - 35	32 x 0,4800			
Kanonak guztira/Total canon	1,60	21	0,34	1,94
Mantenimendu kanona/Canon mantenimiento	1,60			
Kontsumoen Historia / Historico de Consumos				Kuota / Cuota
100				25,44

tutueria sarea ere antolatu, planifikatu eta eguneratu egin behar da. Auzo berrietan tutueriak berri samarrak eta material egokiz fabrikatuak dira, baina zonalde zaharragoean, zer esanik ez auzo eta gunee historikoean, 100 urtetik gora duten burdinurtuzko tutuak aurki daitezke, edota amiantoak duten fibrozementuzko tutuak, sarritan erdi buxa-



Ingurumena eraikitzen dugu

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan,
gure instalazioak eraginkorrak izan daitezzen eta ingurumena nahiz pertsonak gehiago errespetatu ditzaten lan egiten dugu, baina, batez ere, oinarritzko helburu bat betetzeko: gure etxe, enpresa edo saltokietan erabilitako ur-tanta oro arazita itzultzea ingurumenera.



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia
www.consorciod eaguas.com



Jabier Almandoz Berrondo ingeniariaren hitzetan, "orain dugunari balioa eman behar diogu".

tuak. Legedi berriaren arabera, fibrozementuzko tutueria aldatu beharra dago, baina oraindik ere proportzio garrantzitsua du sarean.

Nolanahi dela ere, tutueria ez da betiko, eta noizean behin berritu egin behar izaten da. Udaletan diru kopuru bat aurreikusi beharko litzateke tutuariaren portzentaje bat aldatzeko urtero, baina krisialdiak ez dira garairik onena herrietan ordezkatzeko estrategiei heltzeko, eta beraz, gaur duela zortzi urte baino azpiegitura zaharragoa dugu.

Azpiegituraren Balioa indizearen bidez, tutuariaren eguneraketa neurtzen da. Guztiz berria den zatia 1 indizea esleitzen zaio, hortik beherakoa urteak kontatu ahala. Hiri zaharretan batez besteko indizea 0,5 izateak egoera txukuna adierazten du, baina Euskal Herrian oso leku gutxitan heltzen gara indize horretara. Bizkaiko herri zenbaitetan, akaso. Gure Azpiegitura Balioa hobetzeko baliabideak jarri behar dira uraren alboan; ez bakarrik azpiegiturarako materialak, baita langileak ere.

Etorkizuneko eszena pertsonen planteatu behar dute, eta hori egiteko ikerketa proiektuetan parte hartu behar da, optimizazio sistema informatiko-matematikoak erabili behar dira. Horren ondoren etorriko dira kontuak, zenbateko eta nongo tutueria aldatu behar den eta zein material erabili beharko litzatekeen. Hori guztia abian jartzeko eta mantentzeko, baliabide ekonomikoak behar dira, eta zuhurtziaz pentsatzea da argiaren edo errepideen azpiegiturak ordaintzen ditugun eran, urari dagozkionak ere ordaindu beharko direla esatea. Horretan datza Ipar eta Hego Euskal Herriko biztanleen arteko aldea

Materialak eta etorkizuna

HISTORIKOKI ur tutuerietan burdinurtua eta fibrozementua erabili dira. Lehenaz eginiko materialak sendoak eta iraupen handikoak dira. Besteaz eginikoak, berriz, merkeak dira, eta urtetan baleko zerbitzua ematen dute, baina amiantoa dute barruan, eta horri hondakinak bertan itsatsita gelditzeko duen erraztasuna gehituta, bazterrera kondentatu dira materialok. Esan dezagun badaezpada, tutuerietako amiantoa ez dela bertatik zirkulatzen duen urarekin nahasten. Urari ez dio kalterik egiten, beraz, baina arriskutsua da tutueriak manipulatzeko aritzen diren langileentzat. Horregatik, saneamendu lanak egitean, tutu mota hori kentzea da joera nagusia. Une honetan zenbait PVC mota baliatzen dira nagusiki tutuerietan. Malguak dira, eta merkeak gainera. Oro har material egokitzat dauzkate adituek.

Tutueria sareen optimizazioan zenbait proiektu daude Europan, eta horietan eredu matematikoek garrantzi berezia hartzen dute. Auzoka edo zonaldeka hartuta, kontsumitzaile motaren (pertsona, enpresa), kantitatearen, kale eta etxe egituren, eta beste hainbat daturen arabera, tutueria sareen diseinua irudikatzea, tutuerien diametroak kalkulatzeko, mantenu sistema erraztea, seguritate koefizienteak eta neurriak finkatzeko, gune hilak edo ur zirkulazio eskaseko eremuak ekiditea, eta azken finean behar den ura besterik ez igarotzea dira aipatu ditugun proiektuen helburuak. Hirietan ez ezik, aldirietan ere %90etik goitiko balantzeko hidrikoak eta 0,5etik gorako azpiegitura balioak lortzea, alegia.

Jabier Almandozek nabarmendu dizkigun ideien artean, hauxe aipagarria: "Orain dugunari balioa eman behar diogu, amaitu baitira lan handietarako beharrak eta garaiak; kontzientzia erantsi behar diogu egindakoari".

urari dagokionez. Lehenean ur kontsumitzaileak ia dena ordaintzen du, eta bigarrenetan zati txiki bat baino ez. Eta ordaintzeak, batzuentzat tamalez, zaintzea eta kontsumoa gutxitzea dakar. Edo, nahi bada, urari garrantzia ematea eta horren aldeko kontzientzia indartzea. ■

“ Ura guztion ondarea da.
Guztiok zaindu eta defendatu beharrekoa ”



Mintza gaitezen **URAZ**



Gure xedeak

1. Ur masen egoera ekologikoa zaintzea eta hobetzea

UREN KALITATE
FISIKO-KIMIKOA
HOBETZEA



TOKIKO FAUNA ETA
LANDARETZA ZAINDU
ETA BERE EGOERA
HOBETZEA




URTEKO SASOI
BAKOITZEAN IZAN
BEHARREKO
GUTXIENKO
EMARIAK
BERMATZEA



INGURUNE HIDRIKO
LEHENGORATZEKO
URRATSAK:
JATORRIZKO
MORFOLOGIAREN BILA



2. Uholde arriskua kudeatu, herritarren segurtasuna bermatzeko



HIRIGINTZA
PROIEKTU
BERRIAK
KOKATU EGUN UR
GORALDIETATIK
KANPO DAUDEN
GUNEETAN



DAGOENKO
ERAIKITAKO
EREMUETAN,
UR GORALDIEN
ERAGINA
MURRIZTEKO
LANAK



UHOLDE
AURREIKUSPENA
ETA ALERTA
SISTEMAK
ETENGABE
HOBETZEA

3. Uraren esparruan eskumenak dituzten gainontzeko administrazioekin, lankidetzaz sustatzea



«Berrehun urte barru ere lehengo lepotik burua ibiliko dira Venezuelan»

Baten batek eman zion Euskadi Irratiari Sabin Eizagirre jesuitaren izena, eta Hugo Chávezen heriotzaren inguruan mintzatu zen Caracasetik. Hantxe da 1955etik hona, Venezuelako nazionalitatearen jabe, baina “oso euskaldun” sentitzen da. Berriemaile paregabea ezagutu ahal izan dugu Aizarnako (Zestoa, Gipuzkoa) jaioterrira bisitan etorri delarik.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero

1955ean abiatu zinen Venezuelara.

Orduko Venezuelaren berririk batere ez genuela. Mundu erabat itxian bizi ginen jesuitak, ikasten jardun genuen bitartean, bai Loiolan (Azpeitia) bai Kolonbian. 1955ean ailegatu ginen Venezuelara, eta han diktadura zegoen, Pérez Jiménezena. 1958an hura erori eta demokrazia aldia hasi zen, egoera trankildu zen. Petrolio nazionalizatu zen, eta garai ona izan zen. Venezuelak ez da izan ondoko beste herrialdeetan bezalako egoera nahasirik. Demokrazia izena duen hori izan zen, eta ondo.

“Demokrazia izena duen hori”...

Hainbeste injustizia eta hainbeste pobre, hainbeste diru daukan nazio batean... Nola esan horri demokrazia? Inolaz ez.

Hugo Chávez hil zenean izan genuen zure berri Euskadi Irratian, berriemaile jardunean. Nolakoa egoera da gaur egun Venezuelan?

Ni ez naiz analista politikoa, baina beti esan ohi dut nola Venezuelak petrolio asko duen, bada, behin ere ez dutela bakean lagako. Oraintxe, petrolio erreserbarik handienak munduan Venezuelak dauzka, Orinocon sekulako petrolio pila deskubritu dute. AEBak zergatik daude, bada, Ekialde horretan, Iraken eta bestetan? Petrolio mugitzen delako. Horixe esaten dut nik: alde batetik, petrolioak inportantzia ematen diola Venezuelari, eta bestetik, petrolio hori nahi dutela

beste nazioek, AEBek batez ere. Venezuela gora eta Venezuela behera, petroliogatik da. Kolonbiaren ondoan kultura eskasa dauka Venezuelak. Latinoamerikako Grezia deitzen diote Kolonbiari. Bolivia, Ekuador... pobreagoak dira. Brasil eta Argentina indartsuagoak dira, terreno gehiago eta aberastasun handiagoa dutelako. Txile ere, Venezuelaren aurretik beti. Venezuelak berriz, horixe, petrolio!

Petrolioaren diruak ez du gizarte ezberdintasunik ezabatzen.

Esan ohi da, mundu guztian ere, ezberdintasunik handienak Latinoamerikan direla, ez Venezuelak bakarrik. Horrekin batera, esaten dute, kontinenterik kristauena dela, eta kontradikzioa bada ere, injustiziarik handienak

NORTASUN AGIRIA

Sabin Eizagirre (Aizarna, Zestoa, 1936). 10 urterekin zen Loiolan, jesuitekin. Handik, Xabier eta Durangoko kolegioetan ikasi zuen, harik eta 18 urterekin Loiolan nobizio sartu zen arte. Laster hartu zuen Venezuelara joateko destinoa. Latinoamerikan zen 1955ean, Kolonbian, Humanitateak eta Filosofia ikasten, eta Venezuelak 1961etik hona. Fe y Alegría erakundean lan egin izan du, eta oraindik ere, 79 urte bete berrian, ez du geldirik egoteko asmorik: “Oraindik lan pixka bat egin beharra daukat”.





dauden kontinentea omen da. Diru asko dauka Latinoamerikak, baina gaizki banatuta. Venezuelan, esaterako, Bolivian eta Ekuadorren baino desoreka handiagoak daude, askoz ere aberastasun handiagoa dagoelako Venezuelan. Eta zenbat eta aberastasun handiagoa, orduan eta desoreka handiagoa aberatsen eta pobreen artean. Horixe gertatzen ari da Brasilen.

Gizarte ezberdintasun handien artean, pobreen alde saiatu zen Chávez.

1992an kolpea eman zuenean, ezker aldekoa zen haren literatura, dena kuestionatzen zuen. Garbi ikusi zuen kapitalismo neoliberalak ez zuela irtenbiderik Venezuelan. Uste dut horretan arrazoi zuela. Bestalde, ikusi zuen sozialismo errealek ere ez zutela aurrerabiderik eskaini Errusian, Kuban, Korean... Orduan, “XXI. mendeko Sozialismoa” asmatu zuen. Laster etorri zitzaizkion kritikak, marxismoak frakasatu zuela ikusi arren, bide hari segitu nahi izan ziolako. Nire interpretazioa da Chávezek behin ere ez zituela herrialde horiek segitu nahi izan, sozialismo berria nahi zuela, herrialde horiek egindako hankasartzeak zuzendu eta eredu berria egin Venezuelan. Eskuinetik eta ezkerretik etorri zitzaizkion kritikak, gogor. Nire ustez, eta nire ustea besterik ez da, oso zaila da kapitalismoa zuzentzen, sozialismo berria egiten.

Irure baserria

“Askotan kontatzen dut hemengo berri, non jaio nintzen, zer familia izan ginen... Eta nire anaia Pakori eskatu nion bideo txiki bat egin zezan. Eta egin zuen. Eta han erakutsi eta denak: ‘Horiexek bazter politik! Horiexek baserria! Horiexek familia!... Eta nolatan hori lagata etorri zinen hona?’. Ez dute entenditzen”.

Alde batetik indar asko dagoelako kapitalismoa defendatzen, eta beste aldetik, sozialismoak gizarte balio bereziak behar dituelako: justizia, altruismoa, humanismoa... “Humanismoa”, hitz horixe erabiltzen zuen Chávezek behin eta berriz eta askotan. Zioen kapitalismoak humanismoa kendu egin digula pertsonoi, egoismoa sartu digula barruan. Esaten erraza da, apaizek sermoian egiten duguna da hori, baina errealitatean gauzatzen, oso zaila.

Zer diozu Chávezen ahaleginaren gainean?

Chávezek inork eman duena baino diru gehiago eman du herriaren alde, kontzeju komunalen bidez, banku popularren bitartez, edo hezkuntza misioetan. Zer erabilera eman dio jendeak, ordea, diru horri? Behin, joan zen Chávez Puerto Ordazera, eta kooperatiba bat ikusi nahi zuela esan omen zuen. Eta, hantxe, Venalum, burdina eta altzairu lantegi handia. Bilera egin bertako kooperatibistekin, eta zaborra biltzeko sistema garatu nahi omen zuten. 300 milioi bolibar berriren kreditua eskatu zutela esan zioten. “Eta hasi al zarete produkzioan?”, Chávezek, eta “ez, oraindik ez. Kamioi bat erosi dugu, beharko dugu-eta, eta zelular bana. Orain beste kreditu bat eskatuko dugu, produzitzen hasteko”. Eta Chávezen haserre! Baina horixe da Venezuelako kultura. Nik esaten nuena: “Egun batean,

Oso euskalduna

“Hango nazionalitatea daukat, baina leku bietakoa naiz, hangoa eta hemengoa. Jesus Egiguren aizarnarraren liburua irakurri dut [Euskal Herria, por un nuevo nacionalismo, vasquismo y navarrismo]. Horrek galdera eginarazi zidan identitateari buruz. Erdaldunen artean ikasi nuen beti, eta ez dut behin ere hemengo separatismo borroka hori sentitu, baina beti sentitu naiz oso euskalduna, hemengo inor baino euskaldunagoa”.

Chávez haserretuko duk, desesperatuko duk eta suizidatu egingo duk, herri honekin aurre-ra egitea oso zaila da-eta!”. Motxean esanda, nik esaten dut Venezuelak ez dakiela produzitzen, petrolioaren errentak gastatzen dakiela. Elikagaien %70 inportatu egiten dugu. Makineria, ordezeko piezak (autobusak, kamioiak, autoak...), inportatu egiten ditugu, denak. Sermoia bai, guk, “Venezuelan egina”, baina horixe, sermoia.

Hezkuntza izan duzu zure lan-arlo. Hezkuntzak, oro har, fruiturik ematen du?

Ez. Sermoi hori ere oso sartuta dago hango politikarien artean. Hezkuntza da beti soluzioa. Hango hezkuntza ez doa ondo, prestakuntzarik gabeko irakasleak direlako hangoak. Eta, inoiz, “aurten ez dago Fisikaririk” esango dute eskola batean, irakaslerik ez dagoelako! Zientzia aldetik, prestakuntza eskasa. Urtean ehun eskola-egun behintzat behar direla diote: ez gara behin ere ailegatzten, bateko aste santu, besteko opor... Guri festa gustatzen zaigu, ez lana, ez eskola: festa-zale hutsak gara Venezuelen. Ez dago seriotasunik. Politikarientzat erraza da esaten, soluzioa hezkuntza dela, baina hezkuntzak tailerretara ailegatu behar du, enpresetara, politikara... Hezkuntza ez da bakarrik eskola, neska eta mutil-koxkorrentzat, ez, denentzat da. Hezkuntza soluzioa? Prediku faltsua da hori, nire iritziz.

Fe y Alegría erakundean jardun duzu.

Beste inork ez duen seriotasuna du horrek. Jesuitak eta mojak dabilta, gehienak Espainiatik joandakoak. 1955ean fundatu zuen Fe y Alegría Jose María Vélaz euskaldunak. Txilen jaioa zen, hala ere. 13 urte zituela etorri zen Euskal Herrira, eta Tuteran ikasi zuen. Jesuita izan zen. Hezkuntza popularra hartu zuen asmoa, dotrinarekin bakarrik ezer ez zegoela konbentzituta. Eskola hasi zuen, batak eta besteak emandako mahai, aulki eta estalpea baliatuta. Gaur egun, hamasei naziotan ditu eskolak. Vélazek ikusi zuenean eskola haietan erakusteko jenderik ez zeukala, hona etorri eta hemengo komentuetatik eraman zituen mojak: “Zuk zer egiten duzu korridore garbitzen, lehen ere garbi daudenak? Zu zer ari zara sukaldean laguntzen, sukalderia bera nahikoa denean? Zer ari zara zu, errezatzen?”... Sekulako moja mordoa bildu zuen, Fe y Alegrían lan egiteko, munduan barrena. Eta moja haiek ere gustura, aspertuta zeuden-eta nagusiaren mende, aginduak betetzen! Horixe izan zen Vélazen asmakuntzarik handiena.

Mojak, beraz.

Mojak? Gauzak zuzen, administrazioa egunean, kolegioak serio, patioak garbi, lorategiak eder... Orain zahartu egin dira, ordeak. Hala ere, bertako sekularrek asko ikasi dute moja haien eskutik. Mojek bezalako mistikaririk ez dute sekularrek, jakina. Mojek egun osoa zuten lanerako, jai eta aste; sekularrek ez, sekularrek familia dute, bestelako obligazioak. Oraingo Fe y Alegría haien esku dago. Jende ona... Hala ere, Fe y Alegría oasi bat da Venezuelako hezkuntzan. Denek nahi dute bere umea hara eraman, eta lekurik ez. Kalitatea du, baina ez hemengoarekin konparatzeko modukoa, hori ez.

Zer da pobre izatea?

Jatekorik nahikoa ez edukitzea, adibidez. Batzuek, gutxik, gosea pasatzen dute. Beste





AZKEN HITZA

Sinesmena

“Oso pozik nago Venezuelara joan nintzelako, horrek beste mundu bat ireki zidalako. Hala ere, kristau bokazioak zeresan handia dauka horretan. Sinesmen hori ez baneuka, bueltan nintzen honezkero”.

Tartean behin itzultzen zara Euskal Herrira. Baduzu hemengo herri. Nola ikusten gaituzu?

Lehen lau urterik behin etortzen nintzen. Gero, hiru urterik behin... Orain dela bi urte ere hemen izan nintzen, baina oraingoa salbuespena da. Ondo komunikatuta gaude, internet eta skype bitartez, eta hemengo berriak beti dira berak: “Erromara goaz... Afrikara goaz...”. “Ez didazue batere inbidiarik ematen, hain gustura sentitzen naiz ni hemen, egiten ari naizen lanarekin!”. Baina, barru-barruan, sinesmena da! Caracaseko jende pobrearekin egoteak poz handia ematen dit niri. Hemengo erraztasunak ez dit batere inbidiarik ematen. Bestalde, hango zibilizazioa ikusi, eta hemengoa, eta ezinezkoa dela uste dut. Berrehun urte barru ere lehengo lepotik burua ibiliko dira Venezuelan, hemengo arrazionaltasunik ez dago-eta. Horixe esaten zuten garai bateko misiolariak, hango jendeak ez zuela arima arrazionalik! Kar, kar... Maldiziorik handiena da hori esatea, baina horixe esaten zuten. Hainbesteko diferentzia dago handik hona! Hemen dena zuzen dago, dena txukun, dena planifikatuta... Han, berriz, dena da azpigarapena. Hemen dena da perfektu, han dena da inperfektu.

Zoriontasunaz ere baduzu zeure iritzia...

Nik esandakoak aditu eta batek pentsa lezake haiek zoritxarrekoak direla, zorionekoak garela hemen. Bada, deskuidatuz gero, pozikago bizi dira han zailtasunen artean, hemen jende asko erraztasunen artean baino. Hangoen idiosinkrasia ezberdina da. Zapatuan lanetik irten, lagunartea osatu han edo hemen, zopa bat egin barazki eta oiloarekin, eta zerbeza! Eta mozkortu, eta pozik! Eta entenditzen dut mozkortzea, zer edo zer behar dute-eta entretenitzeko. Han ez dago hemengo autoa hartu eta batera eta bestera joatea jatera. Han pozik bizi dira, guk baino gutxiago eskatzen dute-eta. Hemen baino lasaiago bizi dira, hemen beti presaka zabiltzate, beti lanpetuta... Dena ez da pobrezia edo aberastasuna. Pertsona bat kontentu bizitzeko badaude beste gauza batzuk ere. ■


batzuk gaizki janean bizi dira. Konparazio batera, nire lagunik handiena soldatzailea da, lau ume ditu. Uste dute auzoko familiarik onenetakoak direla. Goserik ez. Etortzen da etxera arratsaldeko seietan, bi ogi hartuta. Eta bi ogi horiekin eta kafe pixka batekin afaltzen dute, eta gosaltzen dute: ogia eta kafea eta lanera. Horixe da pobrezia. Osasunean, berdin, medikua pagatzeko edo medizinak erosteko dirurik ez daukate. Hezkuntzan, libururik ez daukate. Orain gobernuak ematen ditu liburuak, baina beraren ideologiakoak! Baina umea etxera joan eta ez dauka aulkirik, ez mahairik ikasteko. Lurrean jarri eta, belauenen gainean koadernoak, eta hantxe estudiatzen. Askotan, lapitzik ez boligrafoz ez dute. Zer ikasiko dute, bada? Pobrezia. Etxea, berriz, edozer gauzari esaten diote han etxea. Desastrea da hura! Zikina batetik, eta itxurazko paretarik ez, itxurazko oherik ez. Horrela bizi dira gehienak Venezuelen. Hemen ere ba omen dira pobreak. Nik ez ditut ikusten, bada! Hemengo pobrezia lanik gabe gelditzea da. Eta, hala ere, ez dut ikusten hemen. Han, berriz, sudurra atera eta bazter guztietan usaintzen da pobrezia auzo horietan.

Zein kolore dakar etorkizunak?

40 urtean, demokrazia izan genuen. Gero, etorri zen Chávez, eta hark ere ez zuen konpondu. Oso gaizki gaude, dena falta! Ustelkeria handia, gaitasuna txikiegia... Venezuelak diru asko dauka, baina ez daki administratzen, ez gobernuak, ez familiarik, ez inork. Ez dago hemengo arrazionaltasunik, gauzak zuzen egiteko, dirua aurrezteko, gauzak hobetzeko. Nola gainditu egoera?

argia

ikus-entzunezkoen
EKOIZPENAK



Komunikazio ikuspegi orokorra, iraunkorra eta lankidetzan oinarritua

- Zuzeneko emisioak
- Ekitaldien grabazioak
- Promozio bideoak
- Dokumentalak
- Itzulpenak eta azpigitulazioak...

ARGIAko webgunearen eta sare sozialen bidez
zabalduko ditugu lanak

GURE AUDIENTZIA **ZURE ESKU**

Gure ezagutza eta gaitasun osoa,
profesionaltasunez eta prezio onean

10 urteko esperientzia bideogintzan
eta **1.200 bideo** baino gehiago ekoitziak

Informazio gehiago: 943 37 15 45 · ekoizpenak@argia.eus

Jolasa kalera ateratzea xede

Kirikiño, Kar-Kabia, XAT, Kukumixo, Txipristin, Txatxilipurdi, Goñi... Euskal Herriko aisialdia josten duten hainbat talde biltzen ditu Amarauna sareak. Elkarte eredu ezberdinak izan arren, euskararen, sormenaren eta parte-hartzearen baloreetan sinesteak batu ditu, besteak beste. Elkarren arteko hariak sendotzeko Amarauna Jaialdia antolatu dute otsailaren 21ean, Zarautzen.

| NEREA IBARZABAL SALEGI |

EGINBEHARREKOAK amaitu ondorengo aktibitatea da jolasa askorentzat, “gauza garrantzitsuak” egin eta gerokoa, denbora-pasa. Batzuen ustez, ikasi eta gero datorren tarte baina ez da aisialdia, hezkuntzaren digestio-aparatuko appendizea. “Aisialdia hezkuntza dela ikusaraztea da Amaraunaren helburua”. Irati Seijo, Usua Martinez, Julen Portillo eta Oier Peñagarikano aisialdi taldeetako hezitzaileak dira, Lekeitioko Kar-Kabia, Zarautzko Txipristin eta Euskal Udalekuetako Goñiko Etxekoak, zehazki. Balioak beste modu batean transmititu daitezkeela uste dutelako elkartu dira Amaraunan, “eredu tradizionaletik urrunduz eta botere harreman ezberdinen bitartez”.

Amarauna proiektu independentea da gaur egun, baina hasieran, duela bost urte, Bizkaiko Urtxintxa eskolaren baitan sortu zen, begirale ikastaroak egiten zituztenek praktiketarako aukera izan zezaten. Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako aisialdi taldeak daude saretuta, nahiz eta Euskal Herriko zazpi lurraldeak hartzen dituzten kontuan. “Iparraldeko UdaLeku elkartearekin harreman zuzena daukagu, eta Nafarroako talde batzuekin ere hitz egin dugu. Hala ere, haiek bizi duten errealitatea eta dituzten beharriak gureengandik oso ezberdinak dira”.

Euskara, parte-hartzea, hezikidetz... gisako balioak talde bakoitzak bere modura lantzeko askatasuna dauka. Kar-kabian, adibidez, tokiko ezagutza urteroko udaleku ibiltarian lantzen dute. “Euskal Herrian barna ibiltzen gara urtero. Goizez oinez egin, eta arratsalde herrietako eragile eta elkarteekin batzen gara”. Zarautzetik igaro zirenean, Putzuzulo gaztetxeko jendearekin tailerrak egin zituztela azaldu du Irati Seijok, eta lotarako lekua ere bertan eskaini zietela. Gazte-

txeetan ez bada, zelaietan, frontoietan edo aisialdi taldeen lokaletan pasatzen dituzte gauak, baina beti herritarrek kudeatutako txokoetan. “Herriak barrutik ezagutu ditugu, eta horrek egiten ditu berezi udalekuak”.

Udaleku, egun pasa eta ekintzetan ezer gutxi uzten da inprobisazioaren esku, jolas bakoitzak aurre-prestaketa bat eta landu beharreko gaiak baitauzka atzeko patrikan gordeta. Eguraldiak ere ezin du hori baldintzatu. Goñiko udalekuetan, eguraldi onarekin eta txarrarekin egin daitezkeen jolasak prestatzen dituzte badaezpada, eguzkitan nahiz aterpean balio berdinak transmitituko dituztenak.

Talde baten parte

Gazte bati aisialdi taldeak zer eskaintzen dion galdetu eta “autonomia”, “baliabideak” eta “autoestimua” hitzak aipatu dituzte, eta bada esaldi bat sarri errepikatu dutena: “Denok gara bat”. Koadriletan sailkatutako herrietan, harreman berrien oasiak izan daitezke aisialdi taldeak, elkar ezagutu arren inoiz traturik izan gabeko pertsonen lagun egiteko aukera ematen baitute.

lagun egiteko aukera ematen baitute. “Herrian edozein arrazoiengatik ‘markatuta’ dauden gazteek lagun berriak egiten dituzte. Talde baten parte sentitzen gara”, azaldu du Seijok.

Baina heziketa mota hau ez da “nik badaikit eta zuk ez” metodoan sartzen, aisialdia hezitzaileentzako hezigune ere badelako. Jolasteko zirrara, keinu txikiak sortutako oilo ipurdia, udaleku amaierako negarrak... berdinak dira gazte nahiz helduentzat. Goñiko taldeko sukaldariak 70 urte ditu, eta begirale gazteenak berriz, 17; adin arte handiak dakarren aniztasunaz gain, botere harremana parekatua dela ikusten dute haurrek, eta hori

Koadriletan sailkatutako herrietan, harreman berrien oasiak izan daitezke aisialdi taldeak, elkar ezagutu arren inoiz traturik izan gabeko pertsonen lagun egiteko aukera ematen baitute



Gazte bati aisialdi taldeak zer eskaintzen dion galdetu diegu argazkiko Irati Seijo, Usua Martinez, Julen Portillo eta Oier Peñagarikano hezitzaileei. "Autonomia", "baliabideak" eta "autoestima" hitzak aipatu dituzte.

da aberasgarriena, Oier Peñagarikanoren ustez. Hezitzaileen artean sortzen den harremana oso berezia da, hain berezia, non udalekuak amaitu ostean ere hainbat egun igarotzen baitituzte elkarrekin Euskal Udalekuetakoe, "mundu utopiko" hori luzatu nahian. "Azkenean, norentzat antolatzen dugu hau guztia benetan? Umeek asko atertzen dute hemendik, baina guk agian gehiago!", diote Amaraunakoe.

Jolasaz hezi, kalea bizi

Otsailaren 21ean jolasarentzat kalea berreskuratu nahi du Amaraunak. Jolastuz hezi daitekeela ikusarazi nahi dute, eta horren bidez

kalea biziberritu, bertan dauden herritar guztiakin batera. Irrien Lagunak, Bertso Showa, ipuin kontalariak, puzgarriak... Egitarau beteak prestatu dute gerturatzen diren haur, guraso eta hezitzaileentzat. Proiektua ezagutarazteko balioko du Zarauzko jaialdiak, Amaraunak saretze lanaz gain beste hainbat zerbitzu eskaintzen baititu, begirale eta zuzendari ikastaroak esaterako. Aterpeak.info webgunea ere sortu zuten, Euskal Herriko aterpetxe, kanpaldigune eta zelaiei berri ematen duena, bisitariek sartzen duten informazioari esker.

Jaialdirako gonbita luzatua dago eta Amaraunakoe jo dituzte etxeetako txirrinak... "Ba al zatoz kalera jolastera?". ■

JARDUNALDIAK

Eztabaïda · Dialogue · Dialogo

Gaia / Tema / Sujet:

"BIDASOAN ELKARBIZITZA"

Otsailak 19 osteguna.

FICOBAn 19:00etan.

Jose Antonio Santano, Irungo alkatea, Kotte Ecenarro
Hendaiaiko alkatea, Aitor Kerejeta, Hondarribiko alkatea

MODERATZAILEA: Martxelo Otamendi eta Aitziber Zapirain

Antolatzailea

Laguntzailea

Lokarri



MADDI SOROA

Baleren Bakaikoa Azurmendi



EHUKO

IRAKASLEA,

EKONOMIALARIA

Greziarren patua

GREZIAKO GOBERNU BERRIA bere inguru guztikoak harritzen eta asaldatzen ari da. Ez dago agintari politikorik, modu batera edo bestera, Syrizako Gobernuari begiratzeko ez dionik. Bien bitartean, hiritar ugari oso pozik gaude, behingoz bederen, hauteskunde kanpainan esan zena betetzen ari delako. Baina, zer dela eta horrelako harridura?

Azken urteetan Grezian, Espainiako Estatuan, Portugalen eta Irlandan ematen ari den egoera larria areagotu egin da. Izan ere, 2008tik hona bere BPGaren %25, laurdena, murriztu da eta langabezia tasa %27ra inguratu. Ondorioz, txirotasuna familia askotara heldu da: gose, erregai eza, etxegabetze eta hainbat miseria gehiago. Beraz, egoera larrira eramanez dute Europar Batasuneko neurri neoliberaletan.

Egoera hori hobetze aldera, boterera heldu bezain pronto, greziarrei duintasun izpi bat emango dieten oinarritzko zazpi neurri hartu ditu gobernu berriak: 1) elektrizitate eta ur horniketak enpresen, eta aireportuen eta itsas-portuen pribati-

neurri horiek ikusita ez dirudi Greziako Gobernua oso urrutira joan denik eta ondo gauzatzen badira greziarren oinarritzko duintasuna berreskuratzeko baliozko dute. Hau da, EBk promestu ziena kide izan aurretik, bere Tratatuak hori guztia hizki larriz jasotzen baitute. Halaber, neurri horiek edozein herrialdetako konstituzioak jasotzen duena bete besterik ez du egiten: interes orokorrak partikularren gainetik ipini, hots, Alemania eta Frantziako bankuen gainetik.

Tamalez, ohituegi gaude hauteskundeetarako alderdiek aurkeztutako egitarauak nola saihesten dituzten ikustera, gobernura heltzerakoan. Berdin izan eskuineko alderdia, gurean PP, edo sasi-ezkerrekoa: PSOE edo PS. Baina hau ez da Syrizararen kasua.

Bestalde, neurri horiek aurrera eramateko lehen oztopoak izaten ari da Grezia, EBko diktaduraren pean baitago eta horrek nahiko lanabes baititu mendeen hartzeko, hala nola delako Troika ospetsua, eta egoera hori jasan ezin dezaketenean Espainia, Portugal eta Irlandako gobernuak atzerakorrak, Alemania, Herbehere eta Finlandiako gobernuak ahazteke. Azkenean, Europako Banku Zentrala izan da soldata publikoak ordaintzeko dirua ukatu diona.

Greziari geratzen zaizkion balizko irteerak hauexek dira: Txinak zorra eros-tea; Errusiari jadanik dion zorraren ordainketa atzeratzea eta maileguren bat bideratzea, nahiz eta petrolioaren prezio apalak zaildu egiten duen bide hori; Alemaniari naziek Grezian burututako sarraskiengatik diru ordainak exigitzea; eta azkenik, gobernu bonoekin soldata publikoak ordaintzea, hartzekodunek onesten duten heinean. Baina hori burutzen badu, hanka bat EBtik kanpo luke.

Halaber, harrigarria da EBko Legebiltzarraren protagonismo eza, aferan honetan demokratikoki hautatu ez diren erakundeak ari baitira erabaki mingarrienak hartzen. Beraz, EBk legitimitate izpirik eskuratu nahi badu, garaia da “beltzeko gizonen” ordez, Legebiltzarrari protagonismo aktiboa eskaintzea, itxura demokratikoa irabazi nahi badu bederen. ■

Tamalez, ohituegi gaude hauteskundeetarako alderdiek aurkeztutako egitarauak nola saihesten dituzten ikustera, gobernura heltzerakoan. Berdin izan eskuineko alderdia, gurean PP, edo sasi-ezkerrekoa: PSOE edo PS. Baina hau ez da Syrizararen kasua

zazioak gelditu; 2) kaleratutako enplegatu publikoak beren lanpostuetara itzultzea ahalbidetu, epaitegiek horrela ebatzi baldin badute; 3) pentsio apaleko erretiratuei Eguberrietako ordainsaria itzuli; 4) oinarritzko soldata duin bat ezarri; 5) Greziak pairatzen duen iruzur erraldoia jazartzeko urratsak onetsi; 6) aurrekontuko superabita murriztu, zor publikoa kitatzeko ordainketak arintzeko eta ordainketa hauek hazkunderaren arabera finkatu, bestela ezin baita Greziako ekonomia hazi; eta 7) defizit publikoa ahal den heinean gutxitu.



Jakes Bortairu

BATERAKO KIDEA ♦



DANI BLANCO

Giro nahasian

MARTXOAREN 22AN ETA 29AN Departamenduetarako hauteskundeak giro nahasian iraganen dira Frantziako Estatuan. Ontsalaz, iaz egin behar ziren hauteskunde horiek 2015eko abendura gibelatuak izan ziren. Ekainera aurreratzea aipatu ondoren duela zenbait hilabete martxoan antolatzea deliberatu zuten. Izena aldatzeaz gain, departamentalak kantonamenduko ordez, hauteskunde-barrutiak arrunt aldatu dira, baita moldea ere: orain bikote bat eta bi ordezko hautatu behar, lehen hautagaia bere ordezkoarekin.

Baina gutxienezkoa da hori guztia. 2010etik hona kolore desberdinetako gobernuak bultzaturik, aldaketa prozesu kaotikoan sartuak dira Frantziako instituzioak. Departamendua bera kolokan dago eta martxoaren hondarrean hautatuko diren asanbladak 2020an desagertu beharko lirateke, denetan ez bada, lurralde askotan bederen. Are gehiago, hauteskundetarako hilabete eta erdi eskas falta delarik, nehork ezin du erran bihar etzi zein izanen diren departamenduko eskumenak. Izan ere, frantses parlamentua erregioaren eta departamenduaren arteko konpetentzia banaketa berria eztabaidatzen ari da momentu honetan. Gobernuak Erregioak indartu nahi ditu, baina sozialisten artean ere erresistentziak azkarak

dira eta jadanik zenbait puntutan amore eman behar izan du. Nahaste-borraste horrek zein puntutaraino abstentzioa eraginen duen erratea zaila bada ere, azken hauteskundeetan bezala eskuin muturreko Fronte Nazionalaren (FN) gorakada iragartzen dute askok. Panorama horren puntu baikor bakarra da

lehen aldikoz, borondate onez ez bada, legeak beharturik, gizon jauntxo gotorlekuak ziren departamenduetako asanbladetan genero parekotasuna lortuko dela.

Ipar Euskal Herrian erronka berezia dugu ondoko hilabete eta urteetan. Lurralde Kolektibitatearen aldarrikapenari uko egin ondoren, Frantziako Gobernuak herrien arteko elkargoaren aukera proposatu du. Urtearen bukaeran herriko kontseilu guzietan horri buruz bozkatu beharko dute. Azken urteetako lege berriek erregio eta departamenduetatik herri elkargotara konpetentzien delegazio edota

transferentzia baimentzen dute. Horregatik, EH Baiko hautagaiek Iparraldeko instituzioaren definizioa dute ezarriko beren kanpainaren muinean. Batera plataformak berriz, galdera zehatzak egingen dizkie hautagai guztiei eta bereziki, hautatuak izatekotan departamenduaren konpetentzien transferentzia lagunduko duten ala Pauen atxikiko dituzten jakiteko. ■

Nahaste-borraste horrek zein puntutaraino abstentzioa eraginen duen erratea zaila bada ere, azken hauteskundeetan bezala eskuin muturreko FNren gorakada iragartzen dute askok

Kitigan zibi

DANI BLANCO



Itxaro Borda



IDAZLEA

FEMINIZIDIOA hitza ezpainera dator Mexikoko Ciudad Juárezko makilladoreen itzalean agertu emazte hilotzak metatzen ikusitean. Emmanuelle Walter kazetariaren *Abizpa ebatsiak* tituluarekiko ikerketak pobrezia, genero biolentzia eta jatorri etnikoa loturaren latza berriz baieztatzen du, Kanada eta Quebec aldeetako emakume amerindioen kasua aztertuz: hiru hamarkadaz mila berrehun desagertze zenbatu dira eta haietarik anitz *cold case* entzutetsuak dira oraindik. Algonkinoak biltzen dituen Kitigan Zibi erreserbatik 2008tik falta diren Maisy eta Shannon gazteak ardatz, polizia

zein gobernariaren arduragabekeriak azalera-tzen ditu. Liburua, hilobi zurbil haluzinatua bihurtzen da, kontzientzia hartze kolektibo bat, feminista batasun indioetatik haste.

Nork ditu indigenak edo aborigenak maite? Beraien baitako eta arteko biolentziak dituela suntsitzen erraten da, burua inguratuz, biolentzia hori berpizkunde garaitik honarainoko kolonialismo etengabearen ondorioa baldin bada ere. Norberarenganako maitasun ezaz baliatzen dira gauaren erdian harrapari hiltzaileak!

Haustura sentimentalaz urratzen doa Björk. ■



Bixente Serrano Izko

♦ IDAZLEA

%100 nafar

ADN POLITIKARA EKARRIA? Ahal Dugu indar politiko berrian, eraketa eta definizio prozesuan bete-betean dagoela, artikulua hau plazaratu orduko Nafarroako idazkari nagusia hautaturik izanen da. Oraingo, hiru hautagaitzetako bat %100 ADN omen da: “Candidatura 100% ADN Podemos en Navarra” aurkeztu du bere grazia. Ezusteko gatzdun grazia, bai horixe, hitz joko elebiduna: “100 % A(hal)D(ugu)N(afarroan) Podemos en Navarra”. Baina itsusia, itsusia denez, hitz jokoa, politikaren biologizatzaila. Ezin ahaztu garai latz haietaz, giza-kiak-eta biologiaren arabera sailkatu zituzten mugimendu europar haietaz.

Hautagaitzaren izenak ez ezik, haren azalpen testuak ere ez du baztertzeko hitzik: “Oraingoa ez da unea, ez euskaldun, errioxar edo maño eginen ote garen eztabaidatzeko, ez jotak abestu edo Nafarroa osoan euskaraz egin behar ote dugun. Orain lehentasun gorenaren alde apustu egin behar dugu. Lanaren alde borrokatu, osasun unibertsal eta doakoaren alde borrokatu behar, eta zerbitzu sozialen alde”. Gaztelaniaz testua, eta bi eslogan elebidun gero, nafar guztiok integrazteko asmotakoak, baina hari material horiekin bakarrik josita-ko integrazioa.

Lehentasun gorenak biologiar mugaturik: lana, osasuna... Ongizate materialera. *Primum vivere, deinde philosophare* aforismo zaharraren irakurketarik murritzen eta biologiko hutsena, pertsonok bizitzeko prest egonen bagina bezala kezkarik gabe landare baten antza, nahirik gabe, geure buruaz hausnartzerik gabe,

geure gustuetan hautatzerik gabe, solas egin, abestu, jolastu, maitatu gabe... Hori politikaren biologizatzeta hori, azken beltzean!, %100 ADN izenaren itzalpean.

Ikusi behar indar politiko berria zer-nolako programak eta ideiak joanen den jorratzen, kasta (bertze kontzeptu biologizatzaila bat, ezta?), ustelkeria, ongizate materialeko murriztapenak... salatzeaz gain, estatu ereduaz, instituzioen berrantolamenduaz, justizia sistemaz, militarismoaz, errepresio indarrez eta jokamoldeez, hezkuntzaz, kulturaz, estatu barneko kontzientzia nazional ezberdinez, nafarron erabakimenaz...; bizitza materiala eta giza bizikidetzaren bermatzeko behar-beharrezkoak diren bertze kontuek zer eskaini eta zeinekin lan egiteko prest agertzen den.

Hautagaitzaren izenak ez ezik, haren azalpen testuak ere ez du baztertzeko hitzik: Oraingoa ez da unea, ez euskaldun, errioxar edo maño eginen ote garen eztabaidatzeko, ez jotak abestu edo Nafarroa osoan euskaraz egin behar ote dugun

Orain arte indar berri honetan ikusitakoa ikusirik, ni kezkatu: prest antzeman Ahal izanen ote Dugu Nafarroan Podemos gaurko erregimen %100 *navarrrrrista* aldatzeko? ■

IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK



ZALDIERO

Jon Azpillaga

♦

Okelarri agurra

Doinua: Agur hainbeste poz eman duzun.

Bi mila eta hamabostean
otsailak seigarrenean
Roman Okelar joan da mundutik
Santa Ageda gunean.
Herri guztia triste jarri da
egoera ilunean
merezi duen fama izango du
mundutik joan denean.

Romanek beti izan du bere
indarra eta kementa.
Nolakoa zen azaldu gabe
hiltzea izan da pena.
Lagun artean alaitasuna
ematea zuen dena
txapelketetan azaldu ez den
bertsolaririk onena.

Roman Okelar hil egin zaigu
ibili bere auzoan
bere bizia eskainia du
koplatan eta bertsoan
bere hiletan hainbeste lagun
bildu ginen errezoan
orain betiko goza dezala
zeruko paradisoan. ■

Angel Erro ♦

IDAZLEA



DANI BLANCO

Krimen bat idatzi da

KASU GEHIAGO EGONEN ZIREN. Ez zaigu asko iritsi. Sizinio Pudentek, Kristo ondorengo II. mendeko hiritar erromatarra izan arren, aspaldian konkistatutako Kartagotik gertu bizi arren, oraingo Tripoli hiria dagoen tokian, ez zuen epaiketa batean, epaile erromatar baten aurrean, Klaudio Maximo prokonsularen aurrean, latina erabili nahi izan. Epaiketa egiten ari zen hizkuntza erabiltzeari uko egin zion, nahiz eta bera akusatua gabe, akusatzailea izan.

Errefusa kontrako parteak eta epaileak (eta ondorengo historiografiak) mutilaren basatasuna eta etxean jasotako heziketa txarraren frogatzat hartu zuten. Latinik ez egiteak ikasketara herabebate izatea esan nahi du. Ikasten ez duena lagunarte txarretara emana dago, gaizkileen eta puten konpainia bilatzen du.

Akusatuak ongi erabili zituen argudiok. Akusatuak, erretorika Grezian ikasitakoak, berriz, Atenaseko hizkuntza eta Erromakoa miragarriki erabiltzen zituen. Akusatuak filosofotzat zuen bere burua, nahiz eta guk idazle moduan ezagutzen dugun. *Urrezko astoa*, ordurako oraindik idatzi gabea, osorik dugun latinezko eleberri bakarraren egilea da akusatua, Luzio Apuleio.

Apuleio, Kartagotik Alexandriarako bidean, Oea hirian gelditu zen, bidaiak nekatuta, erdi gaixo, negu minak hartaratuta. Bertan Sizinio Ponziano topatzen du, Atenasen ezagututako ikaskide gaztearengana. Honek bere familiako etxea eskaini zion, bertan kokatzeko. Ponzianorenean bikain hartu zuten Apuleio. Etxean Emilia Pudentila ama alarguna, 40-50 urte bitartekoa, eta Ponzianoren anaia gaztea, Sizinio Pudente, bizi ziren.

Kortesiak gain, hor gelditzeko gonbidapenak bazuen goibelasmoa: Pudentila-

ren aitaginarrebak (Sizinio Amiko) seme hilaren ondoreak kudeatzen zituen, biloben izenean. Honek nahi du alarguna bere beste semeetako batekin ezkondu. Sizinio Klaro edadetuarekin. Pudentilak, semeen hobe beharrez, hasieran hala onartu zuen baina, aitaginarreba hiltzean, hitza hautsi zuen. Halere, berriz ezkontzeko ideia bazebilkion buruan, semeen kezka sortuz.

Apopilo ospetsuak Oeako basilikan hitzaldi arrakastatsu bat eman ondoren, hiriko pertsonaia printzipalek hirian bizitzera gelditzeko eskatu zioten. Hori buruan eta arrakastaren hordialdian, Ponzianok Apuleiori proposatu zion bere amarekin ezkon zedin. Damutu zen eskaintzaz baina berandu; ama dagoeneko maitemindu da eta biak ezkonduko dira, familia gutzia kontra dutela.

Luze gabe, Ponziano hilik aurkitu zuten Kartagor. Bertara joan zen, Apuleioren kontaktuei esker, abokatu aritzeko. Seme txikiak, Pudentek, akusatu egin zion anaia hil eta ama magiaren bidez sorgintzeaz.

Epaiketan errugabe aurkitzen zuten Apuleio, zeinak bere defentsaren alegatua txukundu eta argitara eman baitzuen, erretorikan erakutsitako trebeziak harro. Esan bezala, hortik urte askotara, *Urrezko astoa* argitaratu zuen, zein角度an magiak toki handia duen.

Istorio horretatik arreta gehien ematen didana

Pudenteren jarrera

da, kartageraz baino ez hitz egiteko tema, bere aurkariaren indar magikoa hizkuntzan bertan balego bezala. Latinez helarazi zaigu

kasua eta Apuleioren errugabetasuna. Pudentek idatzi izan balu bere hizkuntzan bere bertsioa, edo, urte asko igarota, *Urrezko astoan* Apuleiok egin aitoritza, klabean irakurtzekoa, irakurri izan balu, ez luke —ez genuke— zer egirik. ■



Antton Olariaga

ERDIKO KAIERA

FERMIN MUGURUZA

«Autogestiotik nator eta hortik joko dut beti»

Fermin Muguruzaren indar eta energia handiak ditu *Black is Beltza* komiki edo nobela grafikoak. Kantaria, Harkaitz Cano idazlea eta Jorge Alderete ilustratzailea egile, iazko kultur produkturik erakargarrien zerrendan ageri da, merezimendu osoz. Ezustean, ustekabeko liburu ederra dugu irakurgai zorioneko irakurleok, eta aztergai bikaina, aldiz, kritikariek.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero

Sukalde honetan kuzinatu zenuten proiektua... Harkaitzi [Cano] deitu nion, esanez proiektu bat nuela, etortzeko Irunera, azalduko niola. Etorri zen, eta sukalde honetan bertan eman nion ordu arte idatzita nuen: orrialde eta erdi. Hartu zuen, zutitu zen, eta esan zuen: “Hau akordeoi bat da. Ez dago hauspoa ireki eta soinua irteten uztea besterik!”. Oroitzen naiz horixe esan zuela, zutituta... Orrialde eta erdi hartan nik buruan neukan istorioaren sinopsia zegoen. Eta inportantea, orrialde harekin batera erraldioen argazkia erakutsi nion. Argazkia ere guztiz deigarria gertatu zitzaion, jakina.

Zer zioen delako sinopsiak?

Istorioaren arrankea zen, nolabait esateko: 1965ean New Yorkera eraman zituztela Iruñeko erraldoiak desfila zezaten, baina arrazakeria medio, ezin izan zituztela erraldoi beltzak desfilatzen jarri. Sinopsian esaten nuen gure protagonista –Manex, euskalduna–, han zebilela, eta Manexek zer bide egin behar zuen ere kontatzen nuen, bide edo bidaia horretako zenbait xehetasun. Esate baterako, Montereyko jaialdia, De Gaulle jenerala, Aljeria, Madril...

Nondik atera zen bidaia horren asmoa?

Bidaia benetakoa da, hor ez dago gezurrik. Istorioak, berez, bi gertakari historiko ditu oinarri. Batetik, New Yorkeko desfilea –nahiz eta erraldoi beltzak ez ziren joan; hori guk hartu dugun lizentzia poetikoa izan da–; eta, bestetik, benetako bidaia, munduan barrena egindakoa. Behin, Kuban nengoela kontatu zidaten: Iraultzaren halako urteurren batean komandanteren batzuk Euskal Herrira etorri zirela, Van Van orkestraren lagun batzuk ere bai...



Zirkulu horietan ibilia nintzen Kuban izan nintzenez 1991n, Negu Gorriakekin. Hain zuzen, Van Vanek utzi zigun musika ekipo guztia han jo genezan. Elastiko bat nuen jantzita, “*Black Panther, Power to the People*”, eta nire ondoan zeudenek horri heldu zioten eta bidaiaren historia kontatu zidaten. Harrezkero, dokumentatzeko aukera izan dut eta jakin dut Pantera Beltz batzuk Kuban bertan daudela errefuxiatuta. Baina Kuban ez ezik, Aljerian ere errefuxiatu ziren. Nonbait, Pantera Beltzek AEBetatik Kanadara jo izan zuten, Quebecera, handik Montrealera, Montrealetik Aljeriara, handik Madrilera, eta handik Kubara. Gertaera historikoa zen, eta horixe zen sinopsia. Gainerakoan, hauspoa zabaldu eta toki bakoitzean zer gertatzen zen asmatu behar zen, istorioa jantzi.

Arrazakeria da *Black is Beltz*aren gai nagusia?

Ez dago gai nagusi bakarra... Gaur egun esaten da gauza guztiak harremanetan daudela. “Barkatu! Eta lehen ez?”, erantzuten dut nik.

Lehen ere baziren loturak eta harremanak. Esaterako, Che Guevararen hitzaldi asko entzun ditut. Komikiak agertzen duen garaiarekin oso lotuta daude haietako asko. NBERen egoitzan egin zuen hitzaldia, adibidez. Komikiari laguntzen dion erakusketan jarri dugu hitzaldi hori, Bilboko Alondegian, eta pare bat esaldi ere hartu ditut hitzaldi hartatik, ez komikian erabiltzeko, egin dudakantuan baliatzeko baizik: “Gizateriak esan du: ‘aski da!’, eta jarri da martxan, eta bere martxa erraldioena da!”. Zoragarria! Bada beste esaldi bat ere, Cherena, izugarria: “Dagoeneko ez dago arerio ahulik, kontuan hartu behar ez denik, ez baitago herri isolaturik!”. Internazional osoa ari da antolatzen Che garai hartan! Bera joango da Kongora, bera joango da Boli-viara. Iraultza internazionala da, esaten ari da. Era berean, musika ere harremanetan dago toki guztietan.

Abiapuntua prentsa-ebakin bat izan da, Iruñeko erraldoiek New Yorkera Munduko Azokaren kariatara egindako bidaiaren berri ematen zuena.

Orain dela hamalau urte irakurri nuen albistea, eta gorde egin nuen prentsa-ebakina, askotan egiten dudak bezala. Hau eta hura irakurri, deigarria gertatu, eta jaso egiten dut. Kantuak egiteko balio didate, adibidez. Bilboko Alondegi-ko erakusketan, esaterako, 2000tik hona bildutako zenbait prentsa-ebakin ageri dira. Gaur egun pentsaezina nuke, digitalean irakurtzen dudalako prentsa guztia, nahiz eta *Berriaren* harpidedun naizen. Baina orain dela hama-

lau urte paperezko prentsa asko kontsumitzen nuen. “Noizbait ezer egitea erabakitzen badut, hemen daukat informazioa”, esaten nion neure buruari. Juan Rulforen inguruko ebakina, adibidez, 2001ekoa da. Erraldoiak New Yorken izan zirela irakurri nuenean, eta erraldoi beltzei ez zietela utzi desfilatzen, gorde egin nuen. Harrigarria iruditu zitzaidan albistea.

Hamaika urtez gorde...

Baina handik bost urtera, beste egunkari batean, albiste bera irakurri nuen. Argazkia ere bera zen, erraldoiak beti. Eta ebaki eta gorde egin nuen, berriz. Bestalde, Kuban kontatu zidatena gogoan nuen ordurako eta “arraioa! Eleberria idatzi behar diat!” hasi nintzen neure buruari esaten. Baina niri jendearekin lan egitea gustatzen zait. Musika egiterakoan hala egin dut. Hasten naiz lanean, eta laster nahi ditut beste musikari batzuk ondoan. Horretan, Josu Landarekin elkartu nintzen 2002an. Erraldioen istorioa kontatu eta ikaragarri gus-tatu zitzaion. Esan zidan: “Corto Maltese euskalduna sortu behar duk hemen!”.

Hugo Pratten pertsonaia mundial hori! Baina bizitza bizitza da, hainbat gorabehera izan ziren bidean, eta bertan utzi nuen proiektua 2009ra arte.

Eta orduan?

“Animaziozko filma egin behar diat!”, esan nuen orduan. Dibulitoon-era [bideo-ekoizpen zerbitzuak, Irunen] joan nintzen. 2006an ere haiekin egin nuen *Euskal Herria Jamaika Clash* bideoklipa eta, tartean, *Balsean Bashirrekin* animaziozko filma ikusi nuen, potentea oso! Dibulitoonen gidoia idatzi behar nuela esan zidaten. “Badakizu zein zenukeen lagun ona honetarako? Harkaitz Cano”. Jakina, aurretik ere ezagutzen nuen Harkaitz, bagenuen harremana, oso polita gainera. Eta hots egin nion.

Kalean da komikia. Ez dakit filmaren bidea itxita dagoen...

Ezta pentsatu ere! Kontua da *tempoak* oso ezberdinak direla. Esan nahi dut, musikariok kasik bat-batean egiten dugula lan. “Kantua ere egin behar diat *Black is Beltz*a honen inguruan!”. Eta egin dut. Mikel Azpirozi hots egin eta baietz. Hemendik urtebetera diskoa egiteko plana egiten badut, badakit zein diren epeak. Baina film baten kasuan epeak ikaragarri luzatzen dira. Eta *Black is Beltz*a liburua ateratzeko ere, kontuan hartu 2000n izan nuela ideia, duela bost urte elkartu nintzela Harkaitz Canorekin, duela hiru urte —gidoia bukatu genuenean—, jarri nintzela harremanetan Jorge Aldereterekin...

“Istorio honekin filma egiteko aukera ez dago itxita, baina ikus-entzunezkoen tempoak oso ezberdinak dira”



Euskaraz, gaztelaniaz, katalanez eta frantsesez dator *Black is Beltza*.

Zenbait bilera ere egingo dugu, ingelesez itzultzeko. Bestalde, gaztelaniaz argitaratu dugu hemen, baina edizio berezia du Mexikon. Guadalajarako liburu azokan izan nintzen, eta beste bi edizio egiteko akordioa ere lotu nuen: Kolonbian aterako da udaberrian, eta Argentinan irailean. Eta Txilen ere banatuko dugu.

Produktuaren aldeko apustu sendoa egin duzue...

Lan bat egiten badut, larrua uzten dut bertan. Ezinbestekoa zait egiten dudana azaltzea han eta hemen. Nire eskola propioa da: autogestioa, "egin zuk zeuk". Autogestiotik nator eta hortik joko dut beti, berdin da diskoa izan, filma izan edo liburua.

Zer da lan hau zure musikari edo artista bidean?

Beste artefaktu bat gehiago! Gauza asko da *Black is Beltza*. Bilboko Alondegian pedagogia-taldea ere badute, eta *Black is Beltza* hartu

Beltzak zirelako New Yorken desfilatzen utzi ez zieten erraldoiei buruzko albiste batean du abiapuntua *Black is Beltzak*.

eta unitate didaktikoa egin nahi zutela esan ziguten. Ni neu Pedagogia ikasitakoa naiz, eta zoragarria iruditzen zitzaidan asmoa. Gazteak motibatzea da kontua, eta lortzen ari dira. Sekulako *feedback*a jasotzen ari dira. Pozak txoratzen daude. Batean, haikuak asmatzen dituzte; bestean, bunbuiloetako testuak; hurrengoan, komiki klasikoak dituzte aztergai, edo emakume ilustratzaileen lanak... Ideiaren berri eman zidatenean, *chapeau* iruditzen zitzaidan, eta joan ere egin nintzen tailer haietako batera.

Jorge Alderete da ilustratzailea...

Argentinako Los Fabulosos Cadillacs musika-taldearentzat egiten zuen lana ikusi nuen, erabat txundituta utzi ninduen. Taldea ezagutzen nuen, Mexikon haiekin batera jo nuen 1992an. Haien managerrarekin gertatu nintzen Los Angelesen, eta marrazkilariak galdetu nion. "Bai, motel, Mexikon ezagutu huen! Foro Aliciaren afixa guztiak egiten dituen morroia!". Alderete, komikilari baino, ilustratzailea da, afixak egiten ditu, disko azalak eta hau eta hura. Komiki tirak ere eginak zituen, baina honen moduko lan mardulik ez. Hala ere, berarekin kontaktatu nuen. Jorgek Buenos Airesen jotzen ikusi ninduen, Cemento mitikotan, Todos Tus Muertos-ekin, eta hartatik ezagutzen ninduen. Asmoa azaldu nion, eta gidoia eskatu zidan. Jaso zuen, eta emazteari erakutsi zion. Galerista eta arte-kritikaria du emaztea, Mexiko DFn. Laster esan zidan Jorgek: "Fermin, nik ilustratzeko egina dela ematen dik, baina egia esan behar diat: andreak esan zidak lan hau bai ala bai egin behar dudala". Beraren etxean nuen aliatu-rik handiena! Zail xamarra izan da elkarrekin lan egitea, distantziagatik. Baina Skype bidez jardun dugu, Bartzelonan ere izan ginen, DFn ere denbora eman dut berarekin... Zoragarria izan da Jorge Aldereterekin lan egitea. ■



Liburu azoka

Mungian, otsailaren 20tik martxoaren 1era Matxin plazan.

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

ERDIKO KAIERA

GEUK eta EKKI

Kulturaren ekosistema berrasmatzeko haziak

Zerbait mugitzen ari da. Iaz plazara irten ziren bi egitasmok –sortzaile ugari batu dituen GEUK plataforma eta egile eskubideak kudeatuko dituen EKKI agentzia– urrats berriak iragarri dituzte otsailean. Agenda diferenteak dauzkate, kezak berriz, antzekoak: nola birformulatu sektore kulturala Euskal Herrian.

| GORKA BEREZIARTUA MITXELENA |

MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS



Bilboko Kafe Antzokian aurkeztu zuen GEUKek Premiazko Neurrien Egitasmoa. Kulturaren Euskal Kontseiluaren bilera baino lehen egin zuten, erakunde publikoekin eta gizartearekin gaiari buruzko elkarrizketa sustatzeko asmoz.

“PREMIAZKO NEURRIAK”, horixe hartzeko eskatu zuen Guk gEURE Kulturaz (GEUK) plataformak joan den astelehenean; “kulturaren ekosistemaren endekatzeko progresiboari” aurre egiteko beharrezko erabakiak. Aste berean biltzekoa zen kultur eragile publiko eta pribatuak elkartzen dituen Kulturaren Euskal Kontseilua eta programa konkretu bat aurkitu zuen mahai gainean. Esparru ugariatako sortzaile, antolatzaile, hedabide eta

300 lagunen ekarpenak jaso ditu GEUKen Premiazko Neurrien Egitasmoak: 31 erabaki “kultur ekosistema” biziberritzeko

hezitzaileek proposatutakoa, GEUKek bildua: 300 lagun baino gehiagoren ekarpenak.

Zabala eta aldi berean zehatza da otsailaren 9an Bilboko Kafe Antzokian aurkeztu zuten Premiazko Neurrien Egitasmoa, 31 erabaki proposatzen ditu hainbat esparrutan –alor ekonomikoa, juridikoa, ikusgarritasuna...– eta zortzi helburu nagusi finkatzen, sakabanatuta dagoen sektorea artikulatzetik, kulturaingintzarekin lotutako enplegua sustatzera.

Legedian aldaketak eskatzen dituzte xede horietako batzuek –adibidez, bertako hedabideek bertako kulturari buruz informatzeko kuotak ezartzea–, eta aurrekontuak edo kultur politikak diseinatzean “ardura partekatutik abiatutako elkarlanak” indarrean jartzea ere agertzen da zerrendan.

Eztabaidarako dokumentua izan nahi du, kulturegintzan eragina duten agente guztien artean bide amankomunak bilatzeko.

Sektore bat martxan

5.000 enpresa, 20.000 langile, 10.000 elkarte eta 30.000 boluntario baino gehiagok osatzen dute kulturaren ekosistema Euskal Herrian, GEUKek emandako datuen arabera. 2014an Durangon egindako bi saioekin hasi zen ibiltzen plataforma, sektoreko partaideek elkar ezagutzea eta batera lan egitea sustatzeko.

Kulturaren Euskal Kontseiluari zuzendu zaio otsailen, baina organo horretaz gain, EAEko Legebiltzarrean, bestelako administrazio publikoetan eta alderdi politikoen artean ere zabaltzen nahi dute dokumentua. Baita herritarren artean ere, noski, kultur politikari buruzko elkarrizketa publikoa bultzatze aldera. Kezka badago eta, aspaldiko partez, askoren artean partekatu da.

Egile eskubideen euskal agentzia otsailaren 26tik aurrera

Euskal Kulturgileen Elkargoa (EKKI) ezaguna egiten ez bazaizu, lasai, hemendik aurrera izango baituzu haren berri. EAEko buletin ofizialean 2014ko urriaren 21ean argitaratu zenez, Eusko Jaurlaritzak baimena eman dio nagusiki Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako egile eskubideak kudeatuko dituen erakundea izateko. Otsailaren 26an aurkeztuko dute jendaurrean, Bilboko San Inazio auzoan dagoen Euskararen Etxean.

Egile eskubideen euskal agentzia otsailaren 26an aurkeztuko da: mota horretako beste erakundeen aldean, gardenagoa izan gura du

“Nagusiki” EAErentzat sortu den arren –halaxe publikatu da buletinean–, eta Espainiako Estatuari dagokion arren horrek zer esan nahi duen definitzea, Igor Estankona idazle eta EKKIko kideak urrian bertan azaldu zuenez, agentziaren bokazioa “euskararen lurralde osorako” baliagarri izatea da. Alegia, sortzaile lapurtar, baxenabartar, zuberotar eta nafarrek ere izena eman ahalko dutela EKKIn.

Bost dira elkartearen bazkide sortzaileak: Euskal Idazleen Elkarte, Euskal Editoreen Elkarte, Musikari (Euskal Herriko Musikarien elkarte), Euskal Herriko Bertsozale

Elkarte eta Irudika Euskal Irudigileen Elkarte Profesionala. Horiez gain, hainbat norbanako ere bazkidetu dira jada, beren obra bat, beste gestio-entitatereen baten esku ez zegoena, EKKIra ekarriz.

Nola antolatuko den? “Hurbilekoa” eta “gardena” hitzak nabarmendu gura izan dituzte orain arte EKKIri buruz hitz egitean, seguruena Espainiako eta Frantziako

Estatuko egile eskubideak kudeatzen dituzten erakundeen –SGAE, SACEM...– funtzionatzeko modu opakua auzitan dagoelako herritar askoren eta kulturegile ez gutxiarentzat. Ez da erraza izango, baina bestelako ereduren batekin asmatzea da kontua. EKKIren kasuan, batzar nagusia izango da erakundearen norabidea definituko duena. Momentuz, bazkide sortzaileak daude ordezkatura eta izena ematen duten guztiek izango dute aukera parte hartzeko: bazkide bat, boto bat.

Ekimen diferenteak dira, kezka batzuk, sektore berean lan egite hutsagatik, antzekoak izango diren arren. Sortuko ote da bien arteko zubirik? Zerbait aldatzeko bidean ote da? Bi egitasmoak forma hartzen hasi den urte kulturean zeresana emateko moduko pisua badaukate behintzat. ■

ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2015

www.bertsozale.eus/araba

4. FINALAURREKOA

OTSAILAK 21, larunbata, 17:30ean

ARAMAIO, Kultur etxean

Gai-emakia: Aintzane Irazusta Arzallus

Oihane Peres
Jon Ruiz
Unai Bengoetxea
Igor Agirre
Irati Andia
Ruben Sanchez

Babesle nagusiak:

- Arabako Foru Aldundia
- Araba Foru Aldundia
- www.ara.net
- udapa
- LABORAL Kutxa
- Vital gizarte ekintza
- artepan
- Udala:
- Antolatzailea:
- Arabako Bertsozale Elkartea
- argia

Literatura

Bazterrak
Uxio Novoneyra
Itzultzailea: Koldo Izagirre
Pamiela, 1998



Mapa eta lurraldea

GALIZIA, Lugo, Coureleko mendietan barrena ibiliko gaitu Uxio Novoneyrak. Ibili gintuen bezala paraje berdintsuetatik Anxel Folek *Kriseiluaren argipean*. Hegoalderago bidaiatu ginen Xose Luis Mendez Ferrinen *Mugaldeko jendearekin*, Ourense aldera, Galizia eta Portugal bereizten dituen arraiara –hain justu Miguel Torga portugaldarrak *Piztiak* bilduman bisitatzen zuen Tras os Montes haien bestaldera–. Dena dela, beste garai batzuk ziren –Josu Landak, argikari honetantxe esan bezala, Novoneyraren poemak iritzira: “Baten batek galegotik gehiegi itzultzen ari dela pentsa dezake”–. Beste garai batzuk ziren, itzultzen genuen galegotik, Novoneyra, Fole, Mendez Ferrin, guztiek ere partekatzen zuten lurralde bat, mendi, landare, animaliez egina. Zerikusirik ez Iolanda Zuñigaren *Post-it bizitzak* ipuin liburuak erakusten dizkigun Vigo eta enparauekin. Horiek gutxiak, ordea, eta gehiagok, osatzen dute euskaraz irakur dezakegun literatura galegoaren kartografia.

Koldo Izagirreren itzulpenean, eta bi liburukitan –antza, papera merkeago zegoen laurogeietan, edo ez hain garesti behintzat–, Luis Pimentelen *Sombra do Aire na Herba* eta Celso Emilio Ferreireoren *Longa noite de pedra* poemategiekin batera, gerraondoko poesia galegoaren hiru oinarri nagusietako bat da *Bazterrak*. Coureleko gailur ilunak, beraz, otso lurak, euri, elur egunak. Beste ezer baino lehen, leku

izenak, “haietako asko esanguratsuak eta denotazio indar handikoak”, Izagirreren hitzaurrean. Horrengatik daude galegoz, Pia Paxaro, Boca do Faro, Devesa da Rogueira. Pixka bat Joseba Sarrionandiak egiten zuena Ruper Ordorikak abestutako *Izen zaba-rrak* hartan, edota Oskar Alegriak *Emak Bakia* baita ezin ederragoan, itsas azpiko harkaitz, etxe izenekin. Ez bakarrik, ordea: osinak, txiribiak, mendabelarrak, kardulatzak, andagarratzak; balirudike hasiberrientzako botanika gida baten aurrean gaudela, plazer estetikoa ahaztu gabe, hori bai. Baina, guztiaren gainetik, natura, bere gordinean, bere osotasunean, eta ez hiriarekiko kontrajarri, ez eta bereziki gizajendearen gogo aletzeko eran. Nahiz “hemen ongi somatzen dela gizona zeinen guti den”. Eta gizona dioenak dio emakumea, eta gainontzeko genero guztiak, noski. Hirurogeietan galegoen artean nagusi izan zen poesia soziopolitikoaren aurreko poesia da Novoneyrarena.

Garai batean gehiegi itzultzen zela uste bazuen inork, gaur egunean zilegi da pentsatzea gutxiegi itzultzen dela euskarara galegotik. Inork lurralde hori mapan zehatzago marrazten duen artean, ordea, ez ahortzi: Coureleko zero-lurak, Galizia-Portugal arraiakoak bezala, berdin Vigokoak, dira azkengabeak. ■

Aritz Galarraga

GUIKURI
nekazal etxea



Guikuri, 1 • 01138 Murua (Araba)
T 945 464084 / 615782323
guikuri@euskalnet.net
www.guikuri.com





Zirkulutik espiralera
Anestesia

Bonberenea Ekintzak, 2015

Norberarengan sinestea, armarik indartsuena

ROCKA, bere zentzu zabalenean, oso eremu aldakorrra eta desorekatua da milaka arrazoiengatik. Era berean, pertsona batek baino gehiagok osatzen duten proiektuak iraunkorrak bilakatzea zeregin aski zaila da, interes, behar eta egoera pertsonal askok iraute hori baldintzatzen dutelako. Are gehiago, proiektuak trukean partaideei ematen diena zenbatzeko edo ukitzeko zaila bada. Asko eman behar du norberak proiektuak iraun eta motibazioa biderkatuta emaitza hobetzeko. Musikaren esparruan asko aipatu izan da badirela estilo konkretu batzuk –erritmoz eta intentsitatez lasaia goak direnak– urteek aurrera egin arren, emaitza pareko izatea posible egiten dutenak. Eta ez, aldiz, gai nontzekoetan.

Anestesiak asko du gogoeta horietatik, baina bere existentzia eta praktikekin gauza asko erabat gezurtatzen ditu. Taldea sortu zenetik 27 urte betetzear dauden arren, agertokira igotzen diren bakoitzean –guztietan– hastapenetako ilusio eta motibazio bera transmititzen dute, itzela. Eta, badirudi, urteak pasatzeak ez diela indarrean, energian eta irmotasunean ezertxo ere eragin; nik alderantziz esango nuke, are eta irmoagoak eta basatiagoak dira gaur egun. Aipatuko nuke, baita ere, taldearen hiru sortzaileak –Mikel, Dani eta Beloki– ez direla zahartzen, baina hori beraien sekretuaren parte da.

Inguruko eta kanpoko ezerk eragiten ez dion makinaria da Anestesia, bere erloju, bihozkada, egutegi eta elikadura propioa duena, bakarra. Albiste dira egunotan beraien seigarren lan luzea, *Zirkulutik espiralera* (Bonberenea Ekintzak) kaleratu dutelako, *Terapia* argitaratu zutenetik bederatzi urtera. Bitarte horretan lauzpabost kontzertu egin dituzte beraiek nahi izan duten toki, baldintza eta giroetan.

Halabeharrez, taldearen aurpegi eta erreferentea Mikel Kazalis da, proiektu hau jaio aurretik Espainiako Estatuko thrash-metalaren aitzindari Estigia



Indartsu itzuli da Anestesia, bederatzi urteren ondoren.

taldea sortu zuena. Gerora horren ibilbidea eten egin zuten eta Kazalisek lehen aipatutako bi lagunekin *Anestesia cerebral* eta *Moralidad* maketa gordinak kaleratu zituen, Mikelek berak gaztelaniaz abestuak. Baina arazo batzuk medio abesteari utzi behar izan zion. Bitartean, Fermin Muguruzak jaiotzear zegoen Negu Gorriak proiekturako fitxatu zuen.

Ordurako, Anestesiak euskarazko kantuekin grabatuta zuen *Toki berean* EPA, Hardcross eta Esan Ozenkik elkarlanean kaleratutakoa. Hortik aurrera, zaraustarrek thrasha, metala eta hardcorea gizarteratzeko egindako lan itzela publiko gisa gorpuzten joan zen eta Esan Ozenkirekin elkarlanak luze jo zuen: *Gorrotorearen abotsa* (1993), *Erantzun* (1995), *Gu* (1997) eta *Ultrakomunikatzen* (2000).

Kazalisek Anestesiaren ibilbidea –garrantzitsuena eta berezkoena– beste proiektu sendo batzuekin tartekatu izan du (Negu Gorriak, 2Kate, Kuraia eta Matxura) eta bidean Ibon abeslari-piztia batu zitzairen, baina Anestesia beti egon da hor, zutabe bat bezala, inoiz atzerapausorik eman gabe. Halakoa da ere *Zirkulutik espiralera* azkeneko lana, arrakalarik gabekoa, thrasharen esentzia gaur egunera ekarri eta death, hardcore eta grind-arekin are eta sendoagoa eta bortitzagoa bilakatzen duena, baina era berean, estiloz inoiz baino irekiagoa ere badena. ■

Iker Barandiaran

Gaia: Donostia

1 JAUSIA	LANDARE USAINTSU	BI, ERROMATAR ZENBAKIZ	EUSKARAREN GAITASUN AGIRIA	BASOZAIN BURURATU	OSTRETAN ERATZEN DEN BITXIA	ZIZARE
	ITSAS UGAZTUNA		PENTSA- MENDUA		OXIGENOA	IBILGAILUEN ERAKARPEN INDAR
LABAINDU ANITZ, UGARI			ZIRKUTU NIMIÑO		LETRA ERRE- PIKATUA	
		ABEREA UXATZEKO		GIPUZKOAKO IBAILA	OTEA HAZTEN DEN TOKI	
ZUHAITZ MOTA		BARAZKI HOSTOTSUA		MEHATXU		AUZILARI
NAIZEN HAU				MENDIKO ATEA		
	UKATZEKO NAFARROA- KO HERRIA		UHOLDEA	LOGELA BEREZI		ZAREN HORI
			AKATSAK, NARRIOAK			ATLETISMOA EGITEN DUENA
NORANTZ						
2			4 3			
		BUKAERA			TXERRITEGI	
INTERJEK- ZIOA		USTEKABEA, HARRIMENA			LASTARGI	
TXIMU (AL- DERANTZIZ)	ERREGU				LITROA	AZKEN HIZKIA
	DRAGOI BOLAKO PERTSONAIA				EDARI ALKOHOLIKO	GAR
				5 ZEREZ ATZIZKIA		
JUNTA- GAILUA		BOKAL ERREPIKATUA			LUR PUSKA BELARDUN	
ESPERMA (PL)		AREA			ENERGIA	
			SEINALE, ZUBERERAZ			

K	E	B	E	I	P	H
ERR	RIA		G	O	E	T
I	R	I	S	T	U	R
A	K	O	U	X	U	R
S	T	A	M	A	R	I
N	I	E	Z	P	E	S
E	A	S	O	A	M	A
E	N	T	O	T	I	O
O	N	I	M	I	T	I
E	T	A	A	A	Z	O
H	A	Z	I	A	K	Z

ANTZERKIA

Hegorik gabeko amodioa

BI ANTZERKI ESTRENALDI izango dira aurtengo Kultur Maratilan, tartean, Lauka Teatroa talde gaztearen eskutik taularatuko den *Amodioaren Ziega*. Ander Lipusek zuzendu ditu aktoreak eta Xabier Mendigurenek duela hamar urte idatzitako testua moldatu dute. “Poz handia izan da. Taula gainerako asmotan idatzia da, baina ez da erraza bide hori gauzatzea”, esan digu Mendigurenek.

Antzezlanak preso baten eta bere neskalagunaren arteko bis-a-bisa azaltzen du eta, lana orain dela 10 urte idatzia izan arren, “zoritxarrez, gaurkotasun erabatekoa du”, Mendigurenen ustez. Amodioa ziegan gordetzen da, amodio baldintzatua da, hegorik gabekoa. Ez al dira denak halakoak? “Nire asmoan ez zegoen horrelako metaforarik egitea, kartzelako bis-a-bisetako bisita bat kontatzea baizik, eta harreman mota horri buruzko gogoeta batzuk egitea”.

Durangoko Lauka taldea 2013an sortu zen baina ez kasualitatez. Artedramak Aulestin urtero egiten dituzten Euskal Antzerki Topaketetan ezagutu zuten elkar taldeko lau kideek. Bertan, Manex Fuchs antzerkigilearekin batera, laborategi batean bezala hasi ziren Mendigurenen testuarekin antzerki jolasak egiten. “Nahiko emaitza onarekin”, azaldu digu Joana Ocañak antzezleak. “Gauean, kafea hartzen, Manexek animatu gintuen taldea osatzera eta taularatuzera”. Lauka izenarekin euren lehendabiziko lana izan arren, Durangoko Karrika herri antzerki taldean aritutakoak dira, besteak beste.

Nola bizirauten du maitasunak lau hormen artean?

“Amodioaz hitz egiten dugu espazio itxi eta mugatu batean, baina era berean, maitasuna bezalako kontzeptu ireki baten bidez”, dio Eneko Sagardoy antzezleak. Bi pertsonaia horiek egoera desberdi-



AMODIOAREN ZIEGA

Zer: Kultur Maratila egitaraua.

Antzezlanak: *Amodioaren Ziega*.

Antzezleak: Nazaret Froufe, Eneko Sagardoy, Joana Ocaña eta Urki Muguruza.

Zuzendaria: Ander Lipus.

Testua: Xabier Mendiguren Elizegi. **Non:** Kultur Leioa.

Noiz: Otsailak 27.



na sufritzen dute. “Bi mutur horien arteko harremana lotzen saiatzen gara”. Posible da ziega batean maitasuna sortzea? “Asfaltoan ere loreak hazi daitezke”, erantzun du Sagardoyk. “Ziega horren mugak haustea pertsonaien esku dago, eguneroko bizitzan norberak hautsi behar dituen moduan. Barruan ala kanpoan

egon, hormak apurtzearen borroka horretan dabilta biak”.

Dramaturgiarako bide berriak arakatzearen alde, Laukaren proposamen honetan bi bikotek gorpuztuko dute presoaren eta neskalagunaren arteko istorioa. “Bi bikoteek indartu egiten dute proposamen eszenikoa. Proposamen dramaturgiko interesgarria iritsi garela uste dut”, diosku Ander Lipus zuzendariak. Amodioa gela itxi batean, denbora-tarte eta espazio jakin batean gertatzen den maitasuna: “Horrek egoera teatralizatzen du”.

“Euskal Herrian dagoen benetako errealitate batetik abiatzen gara”, jarraitu du zuzendariak. Nazaret Froufek antzezleak dioenez, “testuak hainbat egoerataraz eramango gaitu, baina bi pertsonaia egunerokotasun horretan bizi dira, euren arteko elkarriketak arruntak dira askotan”.

“Pribatua dena publiko bihurtzen dugu. Egoera hori ikustarazten dugu, krudeltasun guztiarekin”, dio Ocañak. Eta Sagardoyk zera gehitu du: “Halako egoera batean, maitasuna nondik irteten den erakutsi nahi dugu, non topatzen duen lekua bizirauteko. Itzalak eta argiak erakutsiko ditugu”. ■

Myriam Garzia

Odoleko burdina neurrian izateko zer jan?

BURDINAREKIN lotuta dagoen osasun arazorik ezagunena anemia ferropenikoa da. Hainbat sintoma ditu: nekea, ahuldade muskularra eta orokorra, suminkortasuna, zurbiltasuna, apetitu galera, goragaleak, beherakoak, ahoko ultzerak edo ilegalera, nabarmenenak aipatzearren.

Beste muturrean dagoen arazoa-ri, odolean burdina gehiegi izateari, hemokromatosia esaten zaio. Akats genetiko batek eragiten du, eta kasu askotan burdinaren absortzio egokia eragozten du. Anemiak baino pertsona gutxiagori erasaten dio.

Burdina ezinbesteko osagaia da bizitzarako. Haren kopuruak balore batzuetatik gora edo behera egitean, osasun arazo larri askoak sor daitezke. Burdinaren pilaketa toxikoa gerta daiteke gorputzarentzat, zelulen zahartze prozesua bizkortu eta hainbat organoren funtzioa oztopen-tzen baitu. Kasu horietan ezinbestekoa da tratamendu medikua hartzea eta dieta zaintzea.

Dieta aldatu, baina nola?

Elikaduran egin beharreko aldaketek albo-ondorio bat izan dezakete: ezinbesteko mantengugai batzuk behar baino kopuru txikiagoan hartzea. Horregatik, dieta aldatu baino lehenago komeni da dietista edo nutrizionista batengana joatea; aditu horrek adieraziko digu nola murriztu hartzen dugun burdina, bestelako okerrik egin gabe.

Hemokromatosiak jota dagoen pertsonak honakoa galdetzen dio bere buruari: osasungarria da nire jan-neurritik burdinez aberatsak diren elikagai guztiak kentzea? Erantzuna ez da hain sinplea: egunero jaten dugun burdina ahalik eta gehien murrizteko, dieta mediterraneo orekatua egin behar da, barazki



Tearen taninoak mesedegarriak izan daitezke hemokromatosia dutenentzat, burdinaren absortzioa gutxitzen baitute.

ugari, fruta freskoa, lekaleak eta zereal integralak jenez. Elikagai horiez gain haragi zuria, arrautzak, arraina, azukreak eta koipeak kontsumitu behar dira neurrian. Laburbilduz, hauek lirateke, funtsean, nutrizio-oreka egokia lortzeko eta gorputzari desintoxikatzen laguntzeko bete beharreko baldintzak:

- **Burdina asko duten elikagaien kontsumoa murriztu:** odolkia, erraiak (gibela), haragi gorria oro har, arrainak eta mariskoak (almejak, ostrak), fruitu lehorrak.
- **Burdinaren kelatzaile naturalak** (kaltzioa, fitatoak, oxalatoak eta taninoak) mesedegarriak izan daitezke aurrekoekin batera kontsumitzen direnean, burdinaren absortzioa gutxitu egiten delako. Egokia da tea –tanino asko ditugosarian edo bazkalostean, gazta freskoa entsaladekin batera, jogurta postre moduan, baita arrozseña ere.

- **C bitamina asko duten zitrikoak eta beste fruta batzuk** (laranja, mandarina, pomeloa, limoia, marrubiak, meloia, kiwia, anana...) otorduen artean hartu behar lirateke, beste janariekin nahastu gabe alegia.
- **Kontuz burdinaz aberastu edo indartutako elikagaiekin.** Ondo aztertu etiketak, eta erabat baztertu horrelako elikagaiak.
- **Murriztu** azukrea, era guztietako jaki gozoak eta produktu azukredunak.
- **Gibelerako elikagaiak.** Gibela da burdinaren eta beste osagai batzuen metabolismoan parte hartzen duen organo nagusia. Horregatik, haren funtzioa indartu dezaketen elikagaiak (eskarola, endibiak, kardua edo txikoria) oso egokiak dira odoleko burdina kopurua handia den kasuetan. ■

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Mausar mausaria



Sagastia, ibai bazterretan izan ohi den soro motetako bat.

ERREKA, IBAI ETA ERRIO aldame-netako erribera lurak dira Euskal Herri atlantikoko nekazarien amestetako paradisua. Lur onenak hortxe bildu dira, urak ekarrita milioika urtean; ez kristorik ezta jainkoaren asmakizuna sortu zuen jenderik existitzen ez zen garaietan hasitako lanak.

Lur sakonak izan ohi dira, beltzak, harroak, aberatsak eta eten-gabe bertatik bertara ura dutenak. Lantzeko errazak, ia isuririk gabekoak. Pagotxa Lurra landu eta ematen duen mozkinetik bizi nahi

duenarentzat. Harroak, hondar eta mausar asko izaten dutelako. Mausar hori arroaren goiko aldetik uholdeek ekarria izaten da, eta lur onenak, aberatsenak dira. Mendi guztietako lanen emaitza onena erribera horietan pilatzen da. Etorri beharko landareak! Baina, geurean esaten den bezala, “horrek ere ipurdian zuloa”. Dena ez da ona. Mausarra mausaria da. Landareen arerioentzat ere mauka.

Batetik, klima. Sail horiek bailaretako beheko barrenetan izaten dira. Horrek arazoak dakartza.

Hotzak beheara egiten duela bada-kigu; beraz, izotzaldi bat datorre-nean, lehenengo eta gehien hoztu-ko diren sailak horiek dira. Hezetasuna ere kaltegarri izan daiteke. Ura ondoan duten sail horietan hezetasuna handiagoa izango da.

Bestetik, gaitzak. Geurean gaitz gehienak onddoek sortzen dituzte. Onddoek, garatzeko, hezetasuna behar dute. Onddo gehiago, gaitzak heda eta heda. Horri bailara zuloe-tan aireak gutxiago korritzen duela eransten badiogu, hezetasun hori ez da mugituko. Heda eta heda. Erri-bera horietako batean tomatea (*Lycopersicon esculentum*) gorriak jo eta erre eginga egonagatik, aldean dagoen tontortxo batean, 50 metro garaia, airea oztoporik gabe dant-zatzen den tokian, tomate landa-reak mastra mardularekin bizi-bizi egon daitezke.

Eta, errematerako, izurriteak. Lur gozoak, oparoak; soro eta baratze ugari. Sail gehienetan, landare berak: sagastia, arta-babar-run-kuia soroak... Landare horiek janez bizi diren intsektuentzat, horientzat bai pagotxa. ■

100 gramo

Mastekatzekoa, adibidez, 100 gramo tabako. Litro erdi bat alkohol eta beste hainbeste ur nahastu eta tabakoa sartu. Hamabost bat egunez beratzen utzi. 100 gramo xaboi neutro gogor birrindu, eta hamar litro uretan urtu. Tabako ura eta xaboi ura nahastu.



Horra hor, erraz askoa, intsektu egoskorrena ere tratatzeko intsektizida naturala. Euli, har, beldar, arkakuso, zorri, zimitz, kotxinilla... Argi ibili! Deskuiduan intsektuak izurrite bilakatu badira, zuzenean tratatu nahasketa horrekin. Erasoari izurrite esaterik ez bada, tratatzeko, erantsi beste hogeit hamar ur. Intsektuak ez baditu garbitzen, tratatu landareak ondo garbitu arte, astero. ■



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua **landareak@argia.eus** helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.



ALKARTASUNA
Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba

Atallu Industrialdea 26 Usurbil 20170 Gipuzkoa
Tel/Fax.: 943 36 11 14 • alkartasuna@usurbil.com
www.alkartasunausurbil.com

Kastitate gerriko zaharren gezur berria

LUR SANTUA, 1095. Lehen Gurutzada abiatu zen eta milaka gurutzatu kristau “fedegabeen” aurka borrokatzera joan ziren, senideak, emazteak, sorterrian utzita. Gudu-zelaian musulmanekin gudukatu behar zuten, baina etxean beste fronte bat utzi zuten zabalik: emazteen bekatu-rako tentazioa. Baldin eta, alde egin baino lehen, kastitate gerrikoaren bidez ixten ez bazuten. Hala, Gurutzadetara nahiz beste edozein gerratara joan baino lehen, Erdi Aroko militarrek emazteen bertutea giltzapean gordetzen zuten. Edo hala esan izan digute behintzat.

Gerrikoaren zerrapoa irekitzeko bi giltza zeuden: bata senarrak eramaten zuen soinean eta bestea apaiz bati ematen zion gorde zezan. Senarra lau urte eta gero itzuli ez bazen, apaizak kentzen omen zion gerrikoa emazteari. Bada, hori ezinezkoa da. Metalezko gerriko horiek zenbait orduz, gehienez ere pare bat egunez erabil daitezke. Urradurek, zaurturek eta infekzioek jota hilko litzateke emakumea. Eta horiek saihestea lortuz gero, epe luzeagoan, metalaren herdoilak tetanosa eragingo lioke.

Gainera, Erdi Aroko kastitate gerrikorik ez da gaurdaino aurkitu. Museotan horrelako aleak erakutsi izan dituzte, baina piezak ganoraz aztertuta guztiak XIX. mendeko falsifikazioak direla ondorioztatu dute. Esaterako, British Museum-en gerriko bat zegoen ikusgai 1846an, baina azkenean kentzea erabaki zuten, falsua zelako.

Literaturan ere gerrikoen berririk ez dago Erdi Aroan. Pentsatzekoa da Bocaccio, Bardello edo Rabelaisek, esaterako, hain gailu bitxia eta ohikoa aipatuko zutela beren satira erotikotan. Baina aipamenik txikiena ere ez dago. Gerrikoa XVI. eta XVII. mendeetako satiretan agertzen hasi zen, gizona zekoa emakumea hertsiki lotuta izateko ohitura batere osasungarria ez zela adierazteko. XVIII. mendean Voltairek lehenik eta Diderotek gero,



Rothenburgeko (Alemania) Krimenaren Erdi Aroko Museoko kastitate gerrikoetako bat.

serioago hartu zuten gaia. Ilustrazio-ko pentsalarientzat Erdi Aroko basakeriaren sinboloa zen kastitate gerrikoa. Eta handik aurrera inork ez zuen pentsatu gerrikoak zentzu metafiorikoa izan lezakeenik eta inork ez zuen zalantzan jarri existitu zirenik.

Berez, emakumeak XIX. mendean hasi ziren kastitate gerrikoak erabiltzen Frantzian eta, nagusiki, Ingalaterran. Erdi Aroko ustezko gerrikoak baino finagoak, arinagoak eta txikiagoak ziren; eramangarriak, beraz. Batez ere bidaetan edo gerra eremuetan erabiltzen zuten, bortxaketa sistematikoak saihesteko. Eta klase ertaineko edo goi mailako familietan neskato nerabeei gerrikoa indarrez jartzeko ohitura ere zabaldu zen urte horietan, beti ere neskatoen mesedetan, jakina, viktoriar pentsamoldearen arabera, masturbazioak gaixotasun fisiko eta mentalak eragiten zituelako.

Hortaz, kastitate gerrikoa ez da Erdi Aroko urte ilunetako beste kudelkeria bide bat, Aro Garaikidean emakumeak erasoetatik pasiboki babesteko eta, gerora, haien sexualitatea erreprimitzeko gailua baizik. ■

Arrastoak

Izotzetako gizonaren tatuajeak eta akupuntura

ÖTZI izeneko izotzetako gizona Alpeetan aurkitu zutenean, 1991n, azalean tatuajeak izan zitzaizkela ikusi zuten ikerlariek, baina azal momifikatu ilunak ez ziren utzi marka horiek identifikatzen. Azkenaldian egindako eskanerren arabera, Ötzik, guztira, 61 tatuaje zituen hainbat gorputz ataletan banatuta. Gehienak marra paraleloak dira, ebakiduretan ikatza igurtziz egindakoak.

Hego Tiroleko Arkeologia Museoko adituek egindako eskanerrei esker, duela 5.300 urte tatuajeak egitea ohitura zabaldua zela baieztatu da. Horrez gain, beste eztabaida bat ireki da. Adituek uste dute tatuaje horiek nolabaiteko akupuntura tekniken emaitza izan daitezkeela. Orain arte aurkitutako akupuntura frogarik zaharrena Txinakoa da eta 3.000 urte inguru ditu. Ötziren tatuajeei buruzko hipotesia baieztatuko balitz, akupunturaren jatorria 2.000 urtez egingo luke atzera. ■



Ötziren eskumuturreko tatuajeak nahiko nabarmenak dira begi hutsez, baina gorputz osoan zituen 61 tatuajeak topatzeko eskaner bereziak egin behar izan dizkiote.

Baso bat opari

errezitaldi piktoriko~musikala



PATXI ZUBIZARRETA
hitza

MINTXO CEMILLÁN
kolorea

JOSERRA SENPERENA
musika

ANTTON VALVERDE
ahotsa

BILBO **ARRIAGA ANTZOKIA**
OTSAILAK 23 20:00 etan

Antolatzailea:



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Babeslea:



Laguntzaileak:



Sarrerak:

· Lehiatila / takila
· Telf.: 946 850 850
· www.teatroarriaga.com
· www.sarrerakutxabank.es

CAN - 'EL BANQUETE'-REN EGILEAK

«Nafarroa basamortu bihurtu dute hainbat belaunalditarako»

Kontuz elkartearen sostenguearekin, Alberto Gil, Aritz Intxusta eta Patxi Zamora kazetariak dira *El Banquete* liburu ezagunaren egileak. Nafarroako Legebiltzarra CANen desagertzea ikertzen hasi den honetan, merezi du galera itzel hori eta berau eragin zutenei buruz gehien dakitenekin hitz egitea. Askok ez diete barkatuko.

| XABIER LETONA |

Argazkiak: Josu Santesteban

Izen kopuru itzela dago liburuan: Miguel Sanz, Yolanda Barcina, Enrique Goñi, Ricardo Martí-Fluxa, Aldo Olcese, Javier Taberna... Esan liteke Nafarroako oligarkia dela ustezko espoliazio hau gauzatzen duena?

Patxi Zamora. Talde heterogeneoa da eta ez dut uste Nafarroako oligarkia denik. Erantzule nagusiak dira azken 25 urteetan botere exekutiboan izan diren pertsonak, Miguel Sanz bera buruan. Estatuan botere faktikoen ordezkari gorenetakoak diren beste talde baten laguntza ere izan dute eta Nafarroako enpresa munduko talde bat ere hor egon da. UGTren eta CCOOren laguntza ere izan dute.

Alberto Gil. Erregimena da espoliazioaren erantzulea, bere zutabe politiko, ekonomiko eta mediatikoa-ekin. Liburuan aipatzen da, adibidez, *Diario de Navarra*-ri inon azaltzen ez den 16 milioi euroko mailegua eman zitzaioela. Ez da ahaztu behar Nafarroan zirkulazioan zegoen diruaren erdia baino gehiago mugitzen zuela CANek.

Izen horiek guztiak patrikak ongi beteta atera dira.

Erantzule nagusien podiuma osatu beharko bagenu, Sanz, Barcina eta Goñi leudeke hor puntan?

P.Z. Ez dakit, zaila da hori esatea. Sanz bai eta Jose Antonio Asiain ere bai. Yolanda Barcinak ez ditu operazioak zuzendu, baina bere erantzukizuna giltzarri da Kontrol Batzordeko lehendakaria delako eta guk irakurritako akta guztietan berak ez duelako tutik ere esaten hor gertatzen ari ziren gauza larriak buruz. 2006ra arte gauzak oso ondo joan ziren, baina hortik aurrera nola uler liteke ezer ez esatea? 2009an CANeko zuzendari ohi Lorenzo Riezuk zetorren hondamendiarekin ohartarazten zuen txostena pasa zien Barcina, Asiain eta beste batzuei, orain ere judizialki eta Legebiltzarrean eskatu den txostena, eta ez zuten ezer esan. Erantzukizunaren rankinean jende asko dago. Non zen, esate batera, Nafarroako fiskaltza ikerketa horietan? Desagertua.


UGT eta CCOO ere aipatu dituzue. Zein da haien erantzukizuna?

A.G. Politikoki UPN, PSN, PPN eta CDN izan dira erregimenaren zutabe nagusiak eta sindikal mailan UGT eta CCOO.

P.Z. UGTk eta CCOOk beren jendea izan dute CANeko Administrazio Kontseiluan, zegozkien dietak kobratuz, eta inoiz ez dute txintik ere esan. CDNri buruzko kontu bitxi bat: Kontuzek urte hauetan guztietan Nafarroan izandako bost lehendakarietatik lau eraman ditu auzitegiara. Juan Cruz Alli bakarrik libratu da eta CANeko auzian bere erantzukizuna argia da, 300.000 euro eraman ditu dietetan, eta ezin esan berari buruz ekonomia gaietan gaitasunik ez duenik.

A. G. Areago, berak zuzendu zuen Erakunde Sortzaileen Batzorde Iraunkorraren sorrera bideratu zuen talde juridikoa, Sanz, Barcina, Maya eta Miranda kobratzen egon ziren *black dietak*.

Aritz Intxusta. Gure iturrietako batek zera kontatu zigun Juan Cruz Alliri buruz. Autoan zihoan berarekin eta CANeko egoitza pasatzean esan zion Allik, "inporta zaizu pixka bat itxarotea?". Igo zen





Ezkerretik hasita, Zamora, Gil eta Intxusta kazetariak: "CANeko gure ikerketa guztia zabalik dago eta Eloy Velasco epailea ikertzen ari da Auzitegi Nazionalan".

eta 10 minutura jaitsi. "Zer ibili zara ba?", galdetu zion autoan gertatu zenak. "Ezer ez, Administrazio Kontseilua nuen eta sinatzera igo naiz".

CANek gizartearentzat izan zezakeen baloreaz gain, kalkula liteke zenbat diru galdu zen 2002tik 2012ra? Zuek zalantzan jartzen duzue 1.300 milioi euro balio zuenik.

A.I. CANeko arduradunek esaten zuten 1.300 milioi balio zuela, baina gero zenbat balio zuen jakiteko Caixabankekin egin zuen inspektzioan Banca Cívica osoak -97 eta -350 milioi inguru artean balio zuela zehaztu zen, hori FROBetik 1.000 milioi euro jaso ondoren. Gure aditu taldearen arabera, hala ere, oso zalantzagarrria da CANek bere amaieran 1.300 milioiko balioa izatea. Banca Cívica fusioa egiteko interesatzen bide zitzairen CAN zena baino handiago irudikatzea.

P.Z. Kalkulagaitza da, garrantzitsuena delako Nafarroak CANen gisako finantza erakunde bat galdu duela eta horren zerbitzua itzela

delako gizartearentzat, areago halako krisi garaietan. Baina liburuan azpimarratzen dugun gisan, ez da bakarrik jende honek CANen galera ekarri duela, berberak Nafarroa basamortu bihurtu dute hainbat belaunalditarako. Norbaitek eman beharko du guztiaren kontu, ezta?

A.G. Oro har, ez dakit, baina dirutzak galdu ziren adibide zehatzak badira: aurre-erretiroetan 400 bat milioi euro, bulego zabalkunde neurrigabeen beste milioi asko... Washington bulegoaren irekiera adibide itzela da: Goñik dio 1,5 milioi euro balio izan zuela eta Banca Cívica Administrazio Kontseiluak 20

"Mapari begiratuta, logikoena zatekeen CAN EAEko aurrezki kutxaren batekin fusionatzea, baina ez, Kanariar Irletako batekin egin behar"

Patxi Zamora

• TERMOMETROA

milioi dolar balio izan zuela zioen; dirutza hori finantza jarduerarako AEBetako finantza agintaritzaren baimenik inoiz lortu ez zuen bulego baterako.

Liburuan diozue kontu ekonomikoez gain, honek guztiak oinarri politikoa duela: Euskal Herri usaina izan dezakeen edozeren aurka egitea.

A.G. CANen eraikuntzak badu zeri-kusirik horrekin, Nafarroak tresna ekonomiko hori izanda, uxatu nahi ziren balizko edozelako abentura subirano zaleak. CANen desagerpena, ordea, hainbat faktoreren ondorio da: finantza krisia, espoliazioa eta baita aipatu dugun faktore politikoarena ere.

P.Z. Baina faktore klabe bat bada: euskal usaina izan dezakeen edozein muturreko gorrotoa. Mapari begiratuta, logikoena zatekeen EAEko aurrezki kutxaren batekin fusionatzea, baina ez, Kanariar Irletako batekin egin behar. Ez du zentzurik. Hondamendi honetan badira klabe ekonomikoak, baina nagusiki politikoak dira, eta arduradunak ere politikariak.

Zer balorazio egiten duzue Mari Paz Benitok egindako lanaz? Iritsi zitekeen urrutiago?

P.Z. Gure talde juridikoaren esanetan hilabeteetan ikerketa lan ona egin zuen. Gure ustez azkarregi aritu zen Yolanda Barcinaren aurka funtzionario-eroskeria salaketa egiterakoan, horrek auzia Madrilera bidean jarri zuelako. Pixka bat gehiago eutsi izan balio, kontu gehiago aterako zirela uste dut. Enpresa bat primeran doanean akaso ez dituzu behaketak egiten, gaizki egina hala ere; baina hainbeste gauza gertatzen ari zirenean, inork ez kontrolatzea hori, ez Espainiako Bankuak, ez Nafarroako Gobernuak, ulergaitza da. Horregatik, delituen berri ez emateagatik prebrikazioa leporatu nahi genion Barcinari, eta Madril Gorenaren esku geratzen ez zigun horretarako denborarik eman.

Zuen ustez, Benito epaileak zergatik eraman zuen Madrilera, presioengatik edo hemen ibilbide gehiago ez zuelako?



“Guk esan genuen Nafarroako eskuineko zati baten begietara Simon Santamaria zela CNlren gizona Nafarroan”.

P. Z. Hau iritzi pertsonala da eta ez dugu frogarik, baina gure ustez epaileak presio itzelak jasan zituen. Adibidez, epaileak iraunkorreko dieta ospetsuen aktak eskatu zituen eta hauek oraindik iritsi gabe zirela bidali zuen auzia Madrilera.

Eta Auzitegi Gorenera iritsi zen. Zer pentsatu zenuten, hor amaitzen zela ibilbide judiziala edo Gorenak jarraituko zuela.

P.Z. Gure talde juridikoaren arabera, Benito epaileak egindako instrukzioarekin oso zaila zen Gorenak auzia artxibatzea. Ez dugu esaten di-da batean inputatu behar zuenik Barcina, baina bai behintzat gehiago ikertu. Baina ez, erabakia politikoa zen: aste batean artxibatu zituzten Jauma Matasena, Pepiño Blanco eta Barcinarena.

Gorenak Barcinarena atzera bota, baina Auzitegi Nazionalak jarraitzen du ikertzen Banca Cívica ren sorrera; eta Sanz eta Goñiren ondasunak.

P. Z. Ez hori bakarrik, gure salaketa guztia irekia dago eta Eloy Velascok jarraitzen du dena ikertzen.

Aipatzen duzue Gazteluko Plazako elkarte batean epaile, polizia, politikari eta fiskalen arteko bazkari bat. Nafarroan dena ondo lotua badago, ez ote da errazago Madril en ikertzea?

A. G. Nafarroa Estatu arazoa da, gu oinarri horretatik abiatzen gara eta orduan hemen lotua badago, Madril en gehiago. Ikerketa bat delitua gertatu den tokitik kentzea, ustez delitu horiek egin dituztenei presioa kentzea da. Prozesuaren ibilbidean ikus daiteke hori, ikerketa

hemen eraman zen bitartean emaitzak izan ziren. Herritarren presioak ere markatu zuen hemengo egoera politikoa, eta auzia Madrilera eramatea, herritar horiei protagonismoa kentzea da; eta ez da ahaztu behar azken finean CAN en desagertena pairatu dutenak haiek direla. Horregatik, logikoena litzateke hemen gertatutakoen arduradunak hemen epaitzea.

A.I. Aipatu duzun bazkari horretan sukaldari lanetan ageri dena egun Nafarroako Auzitegi Goreneko lehendakaria da, Joaquín Galve.

Kontatzen duzuen guztia sinetsiko da ala ez, ikerketak jarraituko du aurrera ala ez, baina gauza bat argi dago, inork ez du oraindik aurkeztu zuen aurkako kereilarik.

P.Z. Liburua dela-eta mehatxuak izan dira, baina kereilarik ez. Bi kereila aurkeztu dira Kontuzen aurka: lehena [Jesús] Pegenauterena atera genuenean, eta berehala artxibatu zen; bigarrena, Barcina eta Navarra Building- ena fiskaltzara eraman genuenean, hau ere artxibatu zen, helegitea jarri zuten eta berriz artxibatu.

A.I. Gure salaketak Iruñean ikertu dira, hainbat urtetan Auzitegi Nazional en ikertzen ari dira, esan da hango fiskaltza intoxikatu dugula... [barre egiten dute] Tira, argi dago salatu dugunak baduela zentzuren bat hainbeste denbora pasatzeko delitu diren ala ez iker-tzen.

Liburuan anekdota asko kontatzen dituzue, niretzat hau deigarria izan zen: Miguel Sanz Benito epailearen aurrean ari zela deklaritzen eta lau-garren orduan negarrez lehertu zela. Ez dizuete erraz barkatuko.

P.Z. Hori da gure beldurretakoa. Guk salatu ditugun kontu ugari paradigma aldaketa ekarri dute Nafarroan. Duela bost urte Sanz, Goñi eta Barcina guztiz ahaltsuak ziren eta gaur egun hilotz politikoak izatera iragan dira. Ez digutela barkatuko? Bada ez, baina guk ere ez geniokeen barkatuko geure buruei hau ez kontatzea.

A.G. Ez digutela barkatuko? Hala espero dut, hartu zituzten erabaki guztien erantzukizuna ezagutu arte gu gara haiei barkatuko ez dieguna.

Ikerketan zehar jaso duzue mehatxurik, jarraipenik...

A.G. Hasieran bazekiten Patxi hor zebilela, bera zen gure gizon publikoa eta ikerketaren une batean esan zitzaigun Nafarroako Barne Sailean gure konexio informatikoak jarraitzeko agindua zegoela. Informazioa pasa zigunak uniforme- z egiten du lan ohikoan eta sinesgarritasun handia eman genion. Guk beti esaten dugu guri

“Guztiz deskolokatu ditugu eta inoiz ez zuketen pentsatuko gu moduko lau txoriburuk hainbeste informazio izango genukeenik”

Patxi Zamora

“Bi urte eta erdiko epean lehendakari ohi bat inputatua dago, Goñi inputatua, Barcina ihesean, sailburu bat dimititua eta Santamaria alde eginda”

Alberto Gil

[Santiago] Cerverari egindakoa egin izan baligute, gu amuan eroriko ginatekeela, gu ikerketa kazetariak garelako. Bidali dizkigute ezkutuko mehatxuak eta gure mugikorrena zarata festa da.

Hala ere, bildu duzuen informazioa itzela da. Horrek esan nahi du jende askoren laguntza jaso duzuela, eta oso goi mailakoa gainera.

P. Z. Hori da klabea. Guztiz deskolokatu ditugu eta inoiz ez zuketent pentsatuko gu moduko lau txoriburuk hainbeste informazio izango genukeenik. Txikitu egin ditugu eta hori zen helburuetako bat, jakin dezaten gertu gaudela, otso ehiztariaren gisan. Ez duzue kontatzen? Bada, herritarrek jakin behar dutena guk topatuko dugu. Haiek badakite erregimenetik oso gertu dauden iturriak izan ditugula, eta oraindik baditugula. Jende asko dago nekatua gertatu denarekin, eta bada jende zintzoa ere, ikusi duena gertatutakoa guztiz onartezina dela. Erregimenaren zati batek irakurri du liburua eta ez du begi onez ikusten gertatuta-

Eskuin navarristaren mailua

NAFARROAKO Aurrezki Kutxaren sorrera eta desagertzea nola izan zen kontatzen da Txalapartak 2013ko abenduan argitaratu zuen liburu honetan, seguruenik Euskal Herrian azken urteetan idatzi den kazetaritza ikerketa libururik garrantzitsuena. Zazpi garren edizioan doa eta ia 7.000 ale saldu dira, kopuru handia halako liburu batentzat.

Aipatzen diren datu eta izen guztiengatik, funtsezkoa da Nafarroaren azken bi hamarkadetakoa gora-behera politiko eta

ekonomikoa ulertzeko.

Kontuz elkar-
tea eta egileen lan
esker gaz gain,
bada liburua
ulertzeko beste
klabe garrantzi-
tsua: erregimen-
tik gertu ziren
askoren elkarlana
funtsezkoa izan
da berau argitara
eman ahal izate-
ko.



koa eta, horrexegatik hain zuzen, inplikaturakoa alboratu egin ditu.

Ikertzen jarraitzen duzue?

P.Z. Bai, eta gainera liburuak izan du gauza onik. Lehen ehiza zakurren gisan aritu behar genuen, dena usnatzen, orain deiak jasotzen hasi gara. Eta bada informazio orik.

A.G. Bai, liburuaren ondorengoa da Asiainek dietak kobratzen jarraitzen zuela -60.000 euro- Barcinak dietak amaitu zirela esan ondoren. Washingtongo bulegoaren egiazko balorearena. CANetik balore handiko pinturak desagertu direla. Kontuz giltzarri izan da Simon Santamariaren erorketan...

P.Z. Guk esan genuen nafar eskui-
naren zati baten begietara Santa-
maria zela CNiren gizona Nafa-

rronan. Horrek min handia egin zion.

Ikertaren unerik gogorrena?

A.I. Gogorrena izan da liburuari emandako denbora guztia beste norbaitzuei kendu diegula. Ez ginen inon. Edo bai, beti liburuan.

A.G. Oso une gogorrak bizi izan ditugu maila pertsonalean, baina lorpenak ere itzelak izan dira. Bi urte eta erdiko epean lehendakari ohi bat inputatua dago, Goñi inputatua, Barcina ihesean, sailburu bat dimititua eta Santamaria alde eginda. Hasi ginenean inoiz ez genukeen pentsatuko horren urrutiritsiko ginenik. ■

argia.com Elkarrizketatuak
Legebiltzarreko CAN
ikerketa Batzordeaz:
<http://www.argia.eus/albistea/can-batzordea>



www.bertsozale.eus

LIZARRA
Gazteriaren Etxea
Otsailak 21, 17:30

LAKUNTZA
Kultur Etxea
Otsailak 22, 17:30

FINAL-LAURDENAK

argia

Bake giro eskasa oraindik ere

Iraganeko bizipenen aitortza garaian bizi gara, edo halaxe nahi behintzat. Antxeta irratiak eta Lokarrik antolatutako Bidasoako jardunaldiak horren lekuko. Lehen ekitaldia Hondarribian izan da, hil honen 5ean. Bizikidetza sendoa izanen bada, jendarteak –klase politikoa buruan buru– ikaskizun dezente gainditu beharko duela adierazi zuten hizlariek.

| MIKEL ASURMENDI |

JON URBE / ARGAZKI PRESS



Ezkerretik eskuinera: Aitziber Blanco (moderatzailea), Cristina Sagarzazu, Belen Zabala, Fermin Urtizberea eta Jose Miguel Gómez Elosegui.

ELKARBIZITZA SUSTATU aldeko hiru ekimen izan dira otsailean, Hondarribia, Hendaia eta Irunen. Cristina Sagarzazu, Belen Zabala, Fermin Urtizberea eta Jose Miguel Gómez Elosegui, Lokarriko Aitziber Blanco moderatzailearen alboan eseri ziren Hondarribiko Itsas Etxean. Haien parean 200 lagun inguru, adi-adi eta isilean. Hona moderatzailearen zenbait hitz: “Bizikidetzaren bidea ez da samurra, baina gizartearen esku dago. Elkar ‘entzutea’ eta ‘ezagutzea’, horietatik gogokatu batzuk”.

Jose Miguel Gómez Elosegui

J. M. Gomez Elosegik hartu zuen hitza abiaburuan, ETAk 1997an hil zuen Francisco Javier Gómezen anaiak: “42 urte nituen anaia hil zutenean. Bi hilabete pasa arte ez nuen nire barne amorrua libratzerik izan, ondoren, zazpi hilabeteko terapia bati esker nire burua altxatu nuen. Hilketak areago bakezaleagoa izaten lagundu zidan”.

F. J. Gómez Elosegik Martutene espetxeko psikologoa zen. ELAko kidea, euskal nazionalismoaren ingurukoa. Anaia nola hil zuten kontatu zuen, hunkitua baina lasai. Hiltzailearen datuak eman zituen, baita familiak nola bizi zuen kontatu ere, euren amaren esaldi hau barne: “Herri honek ez du konponbiderik”. Jose Miguel baikorra da izatez, baina biolentziaren efektuak oso kutsakorrek direla azpimarratu zuen. Gizartea ez du inork tutelatu behar, eta are gutxiago ETAk. Bizi-

kidetza sendotzeko denbora luzea beharko da, alde bateko zein besteko atentatu guztien argipena. “Ez dago indarkeria justifikatu dezakeen xede politikorik”, gehitu zuen.

Fermin Urtizberea

Fermin Urtizberea hiru egunez bahitua izan zuen GANE talde parapoliziak 1988an (Grupo Antiterrorista Nacional Español). Guardia Zibilak 1976an atxilotu zuen lehen aldiz. Poliziaren eta talde parapolizialen aldetik –hamabost urtez– jasandako jazarpen lazgarriak kontatu zituen, lehen aldiz publikoki kontatu ere. Ezker abertzaleko zinegotzia izan zen Hondarribian. Atxilotua eta jipoitua izateaz gain, isunak ordainarazi zizkieten bi bider: 20.000 eta 15.000 pezetakoak. Baserrian bizi zen, eta jazarpen bortitzek kalera bizitzera behartu zuten. Lagunen etxeetan bizi izan zen, aldian-aldian tokiz aldatuz. Bidasoa aldean ETAren atentatu bat zenean, Urtizberea

“Nik ez dut Montxori buruz hitz egiten, eta gaur ez dut egingo ere (...). Nire etxean ez da gorrotoa sartu...”

**Cristina Sagarzazu,
ETAk hil zuen Montxo
Doralen alarguna**

“Jazarria eta iraindua izan naiz, niri gertatuak neronek asmatuak izatea aurpegiratu izan didate”

**Fermin Urtizberea,
Talde parapolizialek
bahitua eta jipoitua**

poliziaren jomuga izaten zen. Kartzela ezagutu arren –hiru hilabete pasa zituen Martutenen–, une latzenak aldian aldiko bahiketak eta jazarpenak izan omen ziren. Ezagutu du ustezko poliziaren pistola parean izatea eta bala bat albotik pasatzen sentitzea: “Ez dut hiltzko beldurrik izan. Akusatu zizkidaten ekintza guztien errugabea naiz. Gatazkan biktima asko dago, baina nire ideologiaren aldeko kasuei ez zaie besteei bezala begiratu, areago, ni iraindua izan naiz, niri gertatuak neronek asmatuak izatea aurpegiratu didate”, esan zuen.

Belen Zabala

Josu Zabala hondarribiarraren iloba da Belen Zabala. Etxean Jesus Mari deitzen omen diote osabari. Sei anaia-arrebetako gazteena zen. 1976ko irailaren 8an hil zuen Guardia Zibilak, herriko jaietan, amnistiaren aldeko aste gogoangarrietako batean. Hil zutenean Adolfo Suarez zen Espainiako presidentea. Alkateak senperrenak egin zituen Estatuko indar armatuak herritik kanpo gera zitezen, tokiko agintariekin nahiz Madrilgo instantzietako nagusiekin saiatu ere. Alferrik, halere. Guardia Zibilak herria hartu zuen eta haietako batek bi tiroz hil zuen Zabala, inolako “begiespenik” gabe. Autopsiak baieztatu zuenez, tiroak bertatik bertara eginak izan ziren. Mobilizazio ugari eta protesta gogorrak izan ziren bihar-munean: apezpikuek, enpresariak, lantegietako nagusiek, herritarrek eta langileek egundoko erantzuna eman zuten. Josu Zabala *Laminaciones de Lesaca* enpresako langilea zen, *delinente* ofizioz. Belen Zabalak honela kontatu zuen: “Bertako egunkari batek osaba Jesus Mari ‘Un joven de Irún de 22 años y de profesión delincuente’ idatzi zuen. Orduko erregimena nolakoa prentsa halakoa. Familiak urteak

eta urteak eman zituen tamainako iraina ezabatzen. Ahalegin hura ere alferrikakoa. Belenek dioenez, herriaren eta herri elkartearen atxikimendua handia izan da, botereen eta instituzioen aldetikoa, berriz, “existitu ere ez”. Belenek osabaren aita-ama gogoratu zituen, zeharo jota hil ziren, penaz biak ala biak. Alde bateko biktima batzuek egia fermuki exijitzen dutela gogoratu zuen, baina bere iritziz, biktima guztiak ez dira berdin gogoratuak ez lagunduak. Josu Zabala hil zuen guardia zibilak ez zuen kartzela zapaldu ere egin, urte hartako amnistiari esker.

Cristina Sagarzazu

ETAk 1996ko martxoaren 4an hil zuen Montxo Doral ertzaina. Haren alarguna Cristina Sagarzazu ez da inoiz bizitza publikotik at bizi izan: “Nik ez dut Montxori buruz hitz egin, eta gaur ere ez dut egingo”, esan zuen hizketan hastean. Jardun laburrena berea izan zen, sendoa horregatik. 36 urte zituen senarra hil zutenean, baita bi seme-alaba ere. “Nire etxean ez da gorrotoa sartuko”. Horra bere maximetako bat. Ez da hori jendaurrean adierazi duen lehen aldia, ezta bere senarra –bera bezala– abertzalea eta independentista zela. Sagarzazuk hedabideak salatu zituen: “Hildakoen bizkarretik egin ohi duten maneiua doilorra da”. Hori larrutan jasan izan zuen berak. Senarraren hilotza artean bero zegola hedabide baten deia jaso zuen, zuzeneko irratsaio batean sartzeko gonbidatuz: “Ezet esan nien. Haatik, telefonoaren bestaldetik hitz hauek entzun behar izan nituen: ‘Sabin Etxeko aginduen zain al zaude hitz egin ahal izateko?’”. Berarekin eseri ziren gainerako solaskideen antzera, Sagarzazuk “biktima” hitza ez du gustuko: “Montxo ETak hil zuen,

“Nire osaba hil zuen guardia zibilak ez zuen kartzela zapaldu ere egin. Haren aita-ama zeharo jota hil ziren”

**Belen Zabala,
Guardia Zibilak hil zuen
Josu Zabalaren iloba**

modu doilorrez hil ere. Ez dut inoiz ahaztuko, baina ez dut ahazten ere hildakoen lepotik hainbatek atera duten probetxua, probetxu ankerra. Sentsibilitatea oso eskasa da alde guztietatik. Errespetu hitza ahoan bai, baina ‘mordaza’ ezarri digute. Eta hori erraz onartu du gizarteak”, adierazi zuen Sagarzazuk.

Egia, justizia eta erreparazioa

Horratx hiru hitz potolo. Zein baina zein maiseatuagoak, “biktima” hitza ere halaxe izaki, solaskide bakoitzarentzat. Norberak hitzari bere ñabardurak egin zizkion, halere. Aretoan zeudenen galderei erantzun zieten lau hizlariak azkenik. Galdera anitz, eta erantzunak ere bai. Laurek bat egiten dute diagnostiko zenbaitetan. Adibidez: “Isiltasuna da gizarte honen gaitza, gaitz handia. Zauriak sendatu behar dira, baina horretarako asko hitz egin behar da. Elkar aditzen eta hizketan egoki jarduten ikasi behar dugu denok”.

Pasadizoek ondo baino hobeto islatu zuten pertsona hauek bizi izan dituzten une latzak. Horiek baina ez dira kontuak edo ipuinak bailiran ulertu behar. Baldin eta egia, justizia eta erreparazioa guztiontzat izanen bada, hitzak edukiz bete behar dira. Eta artean, denbora luzea beharko da. Hitzak hitz, honako aburu hauek tan laurek bat egiten dute: hiru hamarkadetan gertatutako bortxa lagarriaren ondoren, ikaskizun eta eginkizun handiak ditu jendarteak. Egingako mina, alde guztietan egindako mina, egileek beraiek onartu behar dute, batzuek zuzenean egindakoa eta bestetuek zeharka. Higiene demokratikoa oso eskasa da, zeharo eskasa oraindik ere. Eta, zeregin horretan, lehenik eta behin, alderdi politikoek erakutsi behar dute kultura demokratikoa. Agintariak, alegia. ■

“Biolentziaren efektuak oso kutsakorrek dira. Gizartea ez du inork tutelatu behar, eta are gutxiago ETak”

**J. M. Gómez Elosegui,
ETak hil zuen Francisco J.
Gómez Eloseguren anaia**

«Nola da posible inoiz baino gehiago izatea, eta bukaeraren hasieran egotea?»

Elkarrizketa liburua osatu du Fermin Etxegoien (Oñati, 1966) kazetari eta idazleak *Eutsiko diogu?* (Erein, 2014) idatziz. Izenburuak dakarren galdera bakar horixe egin die sorkuntzaren profesional autonomo diren hamabi laguni, etorkizunaz, euskara eta euskal kultura salbatuko diren, ez ote diren salbatuko, gogoetan.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero

“Inoiz baino gehiago lortu den garaian... badirudi azkenetan garela”, esanez hasten duzu liburua.

Ez zait iruditzen azkenetan garenik, baina kuriosoa da: inoiz baino urrugo zabaldu da euskarazko espresibitatea mundu garaikidean. Ez dakit kontu zehatzik, baina seguru, gaur egun, egun bakar batez XIX. mende osoan baino gehiago idazten da! Internet eta teknologia berriak etorri ziren, mehatxutzat hartu ziren hasieran, eta orain berriz, guztiz mesedegarri ditu euskarak. Kontrakoa gertatzen den arte, inoiz ez baitago jakiterik! Inoiz baino gehiago lortu da, bai, baina horrekin batera, espero ez genitzakeen indizekin egiten dugu topo: euskararen erabilera behera ari da. Nola da posible: inoiz baino gehiago izatea, eta bukaeraren hasieran egotea, funtsezko indizeak (erabilerak), beheranzko joera baldin badu?

Hori da liburuaren abiapuntua.

Zaharragoa ere bada abiapuntua, baina ez du merezi historia osorik kontatzea... Erein argitaletxeak proposatu zidan lana, krisiaren inguruko. Nik ez nuen krisi sozioekonomikoa, bakarrik, jardun nahi, euskarazko bizimoduaren eta bizigarritasunaren mugak, nahiak eta

ezinak hartu nahi nituen gogoetarako. Euskarak duen ezintasunaren inguruan hitz egin nahi nuen nik.

Hamabi lagun hartu dituzu bidaide, guru-rik ez tartean.

Ezta unibertsitateko irakaslerik ere! Eta ez dut inor mespretxatzen: beharrezkoak dira irakasleak, eta beharrezkoak dira poeta mistikoak, osaturik dagoen gizarte batean. Baina, askotan, irudipena da ez ote diren, benetako munduan gabe, mundu paraleloan bizi. Beraz, sortzaile profesional autonomoak hartu ditut, hamabi, eta haiekin hitz egin dut, kontrajarrian diren bi sektoreak –inoiz baino gehiago garela, eta bukaeraren hasieran gaudela–, talkan jarritz. Gogoan hartu dut Gari kantariak kantu bat egiteko hitzak eskatu zizkidala, eusten ari ginen sentipena zuela. Nik Pete Seegerren bidetik jo nuen euste hori

adierazteko, nahiz eta Seegerrek eutsi baino gehiago esaten zuen: *We shall overcome* (Irabaziko dugu). Horatik etorri zitzaidan liburu honetarako gaia: “Eutsiko diogu?”. Galdera bakarreko elkarrizketak dira.

Hamabi laguni egina, nor bere arloan ari dena.

Bai, nork bere arlo profesionaletik hitz egiten du, baina proiektzioa ebidentea da. Euskaraz aritzen den antzerkigile independente bat eustez ari bada hizketan, euskararen iraunkortasunaz ere ari da ezinbestean, nazio proiektu baten jarraikortasunaz eta beste. Proiektzioak berez sortzen dira.

Elkarrizketatu dituzun sorkuntzaren autonomo profesionalok eusten badiote, eutsiko diogu?

Erantzun segururik ezin eman, baina ni haratago joango nintzateke: hauek eusten ez badiote, besteok ere ez diogu eutsiko. Eta besteok eutsiko bagenio ere, ez genioke gizarte osasuntsu, oparo edo aberasgarri bat osatzeko moduan eutsiko. Haiek eutsiko ez badiote, gainerakook subsistentzia egoeran biziko ginatke, ez besterik. Baina nik uste dut oparotasun batean, oparotasun betean bizi beharko ginatkeela. *Pri-*

“Euskarazko bizimoduaren eta bizigarritasunaren mugak, nahiak eta ezinak hartu nahi nituen gogoetarako”

mun vivere, deinde philosophari. Liburuan, *philosophari* ari gara, artea *philosophari* da, azken finean, baina zer nahi dugu, arterik ez duen gizarte bat? Bada, ez. Bizi liteke modu aletratuan, eta euskaldunok oso aletratuak gara, izan, gure lettrismoa erdaren bitartez gertatzen delako betiere. Baita gaur egun ere, jakina.

Hamabi lagunoi galdera eginik ere, bataren erantzuna: “Eutsiko diogun? Zer erremedio!”. Bestearena, “erresistentzia da gurea”. Hurrenarena: “Duda franko bada horretan”, “optimista izan nahi nuke”. Galdera egin bai zuk, erantzunak nola-halakoak...

Borroka horretan bizi dira. Pertsonalki oso jende positiboa da, horregatik dabilta lan horretan sartuta. Baina kontziente dira mugak ere badirela, eta arazoak, eta ezintasunak. Eta hori erabat lotzen zaio hizkuntzaren bizigarritasunari. Horretaz ari gara etengabe. Esan genezakeen: “Erdaraz eginda ere, antzerkigintzan bizimodua aurrera ateratzea ez da gauza erraza. Kontrakoa ere bai!”. Liburuan, Iñigok [Ibarra, Ander Lipus] esan ere egiten du, inoiz baino hobeto dabilela, inoiz baino lan gehiago duela, zenbait obra elebakarrean emanda —euskaraz besterik ez—, hobeto dabiltzala, jendea modu fidelagoan doala haien lana ikustera. Beraz, espero ez daitezkeen egoera kontestualak ere badira; euskararen aldekoak, esan nahi dut. Eta agian, gehiago ere gertatuko dira. Hori, neurri batean, hizkuntzaren sozializazio zuzen edo okerrari lotzen zaio, hizkuntza eredu nagusiaren bizigarritasunari —batuarenari, alegia—, eredu horren onarpen mailari eta abar. Beraz, hau guztia oso lotzen zaio arlo soziolinguistikoa. Eta soziolinguistikoki zer dago, bada egoera, euskararen alde ala? Ez, ezta?

Kalea irabazi behar dugu, etxera ailegatzeko, dio Goiena Komunikazio Taldeko kudeatzaile Iban Arantzabalek, elkarriketaren pasarte batean.

Euskal Herria mikrogeografiaren erreinua da. Batean gauza bat ikusten den moduan, ondoko kalean alderantzira ikus liteke. Ez, bakarrik, Bilbo, Azpeitia, Oñati alderatuz, hiru leku zeharo ezberdinak



“Performance linguistiko subliminal eta erraldoi bat antolatu beharko genuke batuaren trinkotasunaren alde, gauza munstroso bat”.

alegia. Bilbon, inoiz baino euskara gehiago eman zaio Poza kalean poteatzen dabilen morroiari, baina, hala ere, erregresioa gertatu da, espero zitekeen baino erdaldunago dira. Kontua ez da, bakarrik, eman zaienarekin ez datozela bat, eman zaienarekiko errefraktario direla. Oso gai interesgarria da, autokritikatik hitz egin nahi izanez gero, behintzat: euskararen ereduaren zuzentasuna, baliagarritasuna, estrategikotasuna... Eta hortik, hizkuntzaren gaineko aginteaz hitz egiten hasiko ginateke, hau da, nork agindu duen hau honela edo horrela esan behar dela.

“Hemen eta orain, inor ez baita gaztagile guztiz independente, edo independente, Euskaltzaindiak guk denok esatea eta idaztea nahi duen

gisan, in-de-pen-den-te, horretaz ere badoa, izan ere, liburu hau...”

Ez dut uste ni bakarrik naizenik kritika hori egiten duena. Uste dut hizkuntza arautua hitz egiten den mintzairatik gero eta urrutiago dagoela, eta hori arazo handi bat da. Horregatik, *Eutsiko diogu?* liburuan jendearen hitz egiteko modua errespetatu dut. Eta oso zuzenduta dago, hala ere!

Zeure gogoetak ere izan dituzu elkarriketen barna. Mari Añes Gorostia-garekin egindakoan, esaterako, gure Hego-lparren arteko harremanei buruzkoa dugu, esanez Iparraldean oso-oso jende gutxi dagoela Hegoaldera begira, “gutartean bezala zuei begira: ia inor ez, lau super-erudito eta hiru mistiko (eta rockeroren bat) izan ezik”.



Hegoaldean antiespainolak gara. Horixe da gure manamendua bizitza honetan, antiespainolak izatea. Bada, niretzat, Frantzia mila aldiz autoritarioagoa da, diktatorialagoa ez esatearren, Euskal Herriarekin. Garbi daukat hori. Ziburuko ikas-tolan gertatzen ari dena ikusi besterik ez dago. Hori hemen gertatuko balitz, Auschwitz buruz hitz egingo genuke. Frantziako kultura maite dugu, arrazoi askorengatik, baina kontu hauetan, Errepublikaren bateratasun horretatik ateratzen den auziotan, erabat autoritarioa da.

Gero eta gehiago aditzen da adituek esaten dutela euskararen etorkizuna hirian jokatzeko delat. Aldiz, zure sortzaile autonomo profesionalok herrietan bizi dituzu.

Kontu zaila da hori niretzat. Ez da, bakarrik, hizkuntzaren etorkizuna hirian jokatzeko omen dela. Hori ez ezik, badirudi gure zibilizazioaren jarraipena bera ere hirian erabat iltzatuta dagoela. Ni, esaterako, Bilbon bizi naiz, eta bilbotarkeriak denok jotzen gaituenez, batzuetan pentsatzen dut Bilbon baizik ezin

dela bizi Euskal Herrian. Tontakeria galanta, ezta? Bilbon bizi naiz, bai baina, era berean, Oñatikoa naiz, eta badakit zein bizimodu, zein kalitate eta zein mundu edo dagoen herrian! Hala ere, momentu honetan dilema faltsu horietako baten aurrean ez ote gauden iruditzen zait hiritartasunaren inguruan. Eta hori esanagatik ere, Euskal Herrian hiria ez da hain nagusia ere, hemen sare urbano oso trinkoa dugulako oraindik. Zoaz Espainian Gaztelara... Zer da hori? Hirizalea izanik ere, gero eta duda handiagoak dauzkat hirien nagusitasuna omen den horren inguruan. Ez dakit.

Azken galdera, Fermin Etxegoien sortzaile profesionalari, Euskadi Irra-

“Euskaraz aritzen den antzerkigile independente bat eusteaz ari bada hizketan, euskararen iraunkortasunaz ere ari da ezinbestean”

tiko **Musikate** saioaren gidari eta idazleari: **Eutsiko diogu?**

[Isilaldia, luzea oso, erantzuten hasi baino lehen]... Euskara zabaldu egin da lehen erdara baino ez zen tokietara, baina zabaltze horrek ez du esan nahi —salbuespenak salbuespen— egonkortu denik, eta gainera, erdara zabaldu egin da lehen euskara nagusi zen tokietara, eta bertan bai, egonkortu da, edo egonkortze bidean dago. Zergatik? Erdarak dituen milioika hiztunek sortarazten duten gune linguistiko trinko edo dentsitate ezinbestean —grabitatearen legeari jarraiki— erakartzen dituelako euskaldun elebidun asko, gehienak ez esatearren... Baina euskaldunok, ordea, ez gara nahikoak euskarazko gune linguistikoari trinkotasun edo dentsitate erakargarri —zentzu fisiko batean— berbera ekartzeko. Hori horrela da, hori objetiboa da.

Oso zaila izango zaigu trinkotasun linguistikoa lortzea, euskarak, trinkotasunari begira, “minus” bilakatzen zaizkion “plus” linguistiko batzuk badituelako. Adibidez aniztasun kontuak, hau da, euskalkien arteko ezberdintasunak, eta baita ondorioz, euskalkien artean sorturi-

Dozena bat iritzi Eutsiko diogu? liburuko elkarrizketatuen ahotik

Ander Lipus: “Badaukat sentsazioa erresistentzia batean bizi naizela, eta ez dauzkadala gauzak batere erraz”.

Estitxu Eizagirre: “ARGIA egiten dugun lana, euskararen lana, oso bizi dut, eutsiko ote diogun baino, gehiago eragingo dugun”.

Luistxo Fernandez: “Ez dago oso garbi euskarak eutsiko dion. Hor ez naiz ni oso optimista. (...) Euskarak independentzia behar du bizirauteko, agian. Independentziarik gabe, Estaturik gabe, ez du biziraungo”.

Mari Añes Gorostiaga: “Baiezkoa ihardetsiko dizut baina duda frango baditut. Hizkuntzaren aldetik nire inguruan jendeak ikusten ditut gure hizkuntzaz axolarik ez dutenak”.

Eñaut Elorrieta: “Eutsi hitza badoa lotuta, gehiago, irautearekin, bizitzearekin baino. Nire ustez, klabea da bizitzea”.

Miren Amuriza: “Beti aipatzen dira bi faktore horiek, jakintza eta erabilera, baina jarreran dago arazoa, eta nik ez dut ikusten jendea kezkatuta dagoenik honekin”.

Hedoi Etxarte: “Guk ez dugu euskaraz egiten, guk hitz egiten dugu, kito. Hori da ideietako bat eta uste dut, egiten bada, emaitzak daudela segituan”.

Maider Unda: “Gogoia daukanak bai, eutsiko dio. Nik uste dut komodotu egin garela asko”.

Iban Arantzabal: “Momentua dago eustekoa, eustekoa haginekin, ez ospa egiteko, baina noski eutsiko diogula, ze erremedio”.

Maia Eder Kuruxet: “Nik nahi dut izan hemengoa, eta nahi dut ukan hizkuntza hori [euskara], zeren eta sinesten dut egiazki: ez da herri bat hemen, baina hizkuntzak ematen du herria. Nik beti sinesten dut gauza bat: euskara ikasten duen edonor bilakatzen ahal da euskalduna”.

Jon Garaño, Jose Mari Goenaga: “Esperantza daukat eutsiko diogula, baina ez gara joango, ezta ere, hemendik ez dakit nora”, “Uste dut gaudela eutsi puntu horretan”.

Miren Agur Meabe: “Eutsiko diogu, baina, betiko moduan, lanean jarraituta, eta egongo direlako batzuk, ez diot neu, beti, militante batzuk, euskara maite duten hiztun kontzientziatuak”.

ko batuaren ahuldade konjenitua, hau da, sortzezko trinkotasun eza, zeinari buelta emateko, hasteko, nagusitasuna beharko lukeen hemengo hedabideetan... Orduan, euskara gurpil zoro batean dago aspaldi, eta horregatik batzuk ari dira euskalkia berreskuratzen, bertan, oraindik ere, badagoelako trinkotasun sentsazio bat –jende askotxo, toki txiki batean berbetan–, batuari kontrakoa gertatzen zaion bitartean –jende gutxitxo, toki handi edo mugagabe batean berbetan: halako esperanto moduko batean edo?–. Nola lortu orduan, batu trinko, eta ondorioz, erakargarri bat?

Galdera egin duzu. Eta erantzuna?

Bada, indarrak ongi erabilita. Marketin linguistikoa beharrezkoa da, hau da, zerk trinkotzen gaituen eta zerk

“Askok euskalkira jotzen du, askotan, ez bertan sekulako aberastasun linguistikoa dagoelako, baizik eta kontrakoagatik”

ez. Administrazioaren esku dauden komunikazio zenbaitetan, adibidez, propagandatik hasi eta *Goenkaleraino*, eredu linguistiko mugatu –edo lehen-tasunezko– bat zabaldu behar da, ahoz-kotasunetik oraingoa baino gertuagokoa, seguruenik. Trinkotasuna lortuko da jendea modu subliminalan “matxakatzen” baldin badugu egokiro hautatutako mezu errepika-

tuen bitartez. Tontokeriatzat jo daiteke, baina ez da sekula egin... eta suposatzen da milaka lizentziatu-aditu baditugula soziolinguistikian. Jende askok euskalkira jotzen du, askotan, ez bertan sekulako aberastasun linguistikoa dagoelako, baizik eta kontrakoagatik, euskalkietan gauza gutxi batzuk beti modu berdinean –tradizionalean, aletratuan– esaten direlako, hain zuzen, trinkotasun horren bila. Bada, hori: zenbait gunetatik, performance linguistiko subliminal eta erraldoi bat antolatu beharko genuke batuaren trinkotasunaren alde, gauza munstroso xamar bat, bai. Bestela, ez zait plan estrategiko hoberik okurritzen, euskararekin eta euskarazko sorkuntzarekin aparteko interesik ez duten hiztun elebidunak gure estetika linguistiko bateraturantz erakartzeko. ■

Babeslea: Bilboko Udala



«UPN, PSN eta PPN behingoz alboratzearen alde gaude»

Nafarroako Podemos-Ahal Duguko idazkari nagusi izendatu berri dute Laura Perez, Nafarroa Aldatu Ahal Dugu hautagaitzak botoen %52,37 lortuta. Horren aurretik izan gara berarekin.

| XABIER LETONA |

Azkenean Podemos bere izenarekin aurkeztuko da Nafarroako Legebiltzarreko hauteskundeetara?

Gu Podemos izenarekin aurkeztearen aldekoak gara. Uste dugu gure helburu programatikoak eta alderdia antolatzeko berdinak direla Estatuan eta hemen eta, beraz, ez dugula Podemosen izena ezkutatu behar. Ez da taburik egon behar eta ez zaio beldurrik izan behar edozelako eztabaidari.



Laura Perez, Nafarroako Podemoseko idazkari nagusia. 34 urteko iruindarra euskara irakaslea da Lizarran.

Horrez gain, Euskadi eta Akitaniako lurraldeekin harremanak indartzearen aldekoak gara, beti ere nafarren erabakian oinarrituta. Prozesu konstituziogile berri bat ireki behar da. Estatuan autonomia estatutu guztiak bozkatu ziren, hemen ez, beraz, egungo markoa zalan-tzan jar liteke. Euskadiko Podemosekin ere harreman bereziak izan nahi ditugu, haiekin kultura bera partekatzeko eta.

Nafarroako gaiak eta itunak bertan erabakiko dira ala Estatuko Podemosek erabakiko du?

Alderdiko araudi etikoaren arabera, lurralde bakoitzeko batzarrak subira-noak izango dira eta haiek erabakiko dute. Hala ere, hainbat itunek Podemoseko estrategia orokorra kaltetu badezakete, idazkari nagusiak edo estatuko zirkuluen %25ak proposatu dezakete erabakia estatu mailan hartzea. Baina kasu horietan ongi oinarritua egon behar da eta hala ez bada eskaera horiek inpugnatu daitezke.

Badirudi gobernua osatzeko lehia estua izango dela. Itunetan zuen jokaera zein litzateke?

Erabaki hori Nafarroako Herritarren Batzarrak hartuko luke, baina eztabaida hori gaurdanik plazaratu behar da eta gure proposamena da gure helburuekin bat egiten duten indarrekin aldaketa gauzatea. UPN, PSN eta PPN behingoz alboratzearen alde gaude, haiek ekarri baikaituzte egun bizi dugun egoera tamalgarrira.

Argi diozue gai sozialak direla zuen lehentasuna.

Eredu sozial, ekonomiko, produktibo eta energetikoaren aldaketa sakonaren aldekoak gara. Interes pribatuaren gainetik izango diren kalitatezko zerbitzu publikoen aldeko apustua egiten dugu. Besteak beste, aberastasuna banatzeko zerga politika progresiboa nahi dugu, zorraren auditoria, banka publikoa eta urgentziazko enplegu plan bat egitea.

Nafarroa subjektu politiko gisa definitzen duzue. Zer egiteko?

Estatuaren deszentralizazio eta demokrazian sakontzeko tresna gisa ulertzen ditugu foruak, Nafarroaren autogobernua bermatzeko tresna dira. Badira oraindik eskuratu gabeko eskumenak herri administrazioaren eremuan, alor zibilean, zerga esparruan... Herritarren ongizatea bermatzen laguntzeko tresnak dira, eta besteak beste, ez dira eskuratu UPNk helegiteak jarri dituelako halako neurri ugariaren aurka.

Euskarak ofiziala izan beharko luke Nafarroa osoan?

Gure ustez Nafarroa osoan bermatu behar da hezkuntza euskaraz eta zerbitzu publikoak euskaraz jasotzeko eskubidea. Ez da ezer behartu behar, baina euskara Nafarroako hizkuntza da, gure hizkuntza, eta beraz, gure eskubidea ere bai. Motibazioaren bidez euskara Nafarroa osora sustatu beharko litzateke pixkanaka.

Nola ari da bideratzen bake prozesua?

ETAk armak utzi zituen eta, beraz, oso eszenatoki interesgarria ireki da Euskal Herria eta estatu osoarentzat, baina ez zaio egoera horri behar bezala erantzun. Giza eskubideen aldekoak gara, bizikidetzat defendatzen dugu, biktimen eskubideak, presoak... Azken finean, gure memoria historikorako nahi ditugun oinarrien aldekoak gara hemen ere: egia, justizia eta erreparazioa. Duela aste batzuk presoan abokatuen aurka izandako operazioen gisakoak, adibidez, ez dira onargarriak. ■

Enpresen laurdenak ere ez du betetzen kontsumitzaileen hizkuntza eskubideen dekretua

EUSKO JAURLARITZAK 2008ko Kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzko Dekretuaren betetze mailaz ikerketan egin berri du. Hona emaitzetako batzuk:

- %44k ez du araudia ezagutzen.
- Enpresen %22k baino ez du betetzen dekretua.

Sektoreak dekretuaren betetze mailaren arabera:

- Finantza erakundeak, %50.
- Merkataritza-kate handiak, %35,3. - Garraioak, %25,5.
- Posta eta komunikazioa, %16,7.
- Energia, %7,1.
- Merkataritza oro har, % 6,3.
- Merkatal guneak, % 3 eta hipermerkatu eta supermerkatuak, % 1.
- Etxebizitza, % 2,4.

Enpresen %70ak uste du euskararen erabilerak onurak dituela enpresarentzat. Aldiz, %25ak baino ez dauka euskara planen bat abian.

Enpresen %67arentzat euskara erabiltzeko oztoporik handiena langileak euskaldundu beharra da.



Dekretua bete behar dutenen artean ez daude argazkikoa moduko denda txikiak.

Enpresen %75ak ez dauka euskararen alde egiteko neurriak hartzeko asmorik.

Hizkuntza Politikarako sailburuorde Patxi Baztarrikak, emaitzak ikusita, aitortu du bide luzea dagoela egiteko. Alabaina, ez dirudi abiada motela kezka iturri denik. Hala adierazi du berak: "Araua egokiak eta eraginkorrak dira gure egoerarako, egungo

errealitatearen aurretik daude, bide erakusle dira, eta progresibotasunaren printzipioa baliatzen dute".

Eusko Jaurlaritzak hizkuntza politika positiboak egitea hobesten du enpresak euskararen erabilerara gerturatzeko, eta uste du Administrazioa bera baino gizartea dela hizkuntza eskubideak betetzen direla ziurtatzeko modurik eraginkorrena.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Hemengo beste Falcianiak

Egunotan HSBC bankuko 203 herrialdeko 106.000 bezeroen —iruzurgileak eta iheslari fiskalak—; zenbait izen filtratu dituzte hedabideek; 200.000 milioi dolar zituzten euren kontuetan. 9.187 Frantziako Estatuko bezeroak dira, 2.694 Espainiako Estatukoak, eta 169 euskal herritarrek. Hori guztia ezagutu da Hervé Falcianiren lanari esker, informatikaria eta banku suitzarrereko langile ohia. Bere burua arriskuan jarritz, bankuan gordetzen ziren datu sekretuenak eskuratu zituen. Enpresari, bankari, narkotrafikatzaile, politikari, aktore eta kirolari aberats askok hortxe dituzte euren diruak. Bada, informatikariak dio 106.000 iruzurgileak izebergaren punta baino ez direla.

Ondo legoke Euskal Herrian ere jakitea zein diren pertsona boteretsu eta aberats horiek, gure diru-kutxa publikoei iskin egiten dieten enpresari, bankari, notario, mediku eta abarren izenak. Horiek iruzur egiten duten bitartean, langileek beren nomina eskasarekin

aurre egin behar diete eguneroko zergeri. Foru aldu-dientako arduradunek esana dute hemen ere iruzurra badagoela, Suitzara joan behar izan gabe. Eta badituztela beren zerrendak. Horiek publiko egin beharko lirake, iruzurgileak delinkuentea baita, osasun publikoari, hezkuntza sistemari eta zerbitzu sozialei eraso egiten diena, langabetuak, pentsionistak eta behartsuak kaltetzen dituenak. Jendarte osoaren kontra ari den pertsona da.

Foru aldundiek ez badituzte publiko egiten zerrenda horiek, ez al da egongo euskal Falcianirik horiek lortu eta filtratuko dituenak? Egungo araudiak dio hori delitua litzatekeela, baina herritarrentzat —eta eurek dute subiranotasuna— lan eredu garria eta solidarioa litzateke, eta inolaz ere delitua. Delitua behar luke zerrenda horiek ezkutatzea.

Juan Mari Arregi

HSBCtik gobernura, kortsarioek eskuak edozertarako libre

Ostatuetan orain “Fernando Alonso” esan eta edonork aipatuko dizu HSBC, edo Falciani. *Trending topic*. Mundua XXI.eko krisitzar itzel honetaraino bankugintza globalak ekarri duela salatu duten Attac bezalako taldeen garaipen txikia ote? Ez oraindik. Ez behintzat Stephen Greenekin batera David Cameron auzitegira bidean ikusi artean.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

ELIZABETH WARREN SENATARI demokrata ezaguna ari zaio galdezka AEBetako legebiltzarrean Washingtongo gobernuaren ordezkari bati finantza aferez. “[2012ko] Abenduan HSBCk onartu du 881 milioi dolar beltz zuritu dizkiela Kolonbiako eta Mexikoko droga-kartelei (...). Ez da hanka sartze bat izan, gauza bera egin dute behin eta berriz urte luzeetan barrena. Eta harrapatu egin dituzte. HSBCk isuna ordaindu du, baina bere arduradun bakar bat ez da auzitara eraman, inori ez zaio bankugintzan lan egitea galarazi, ez da planteatu ere egin erakunde horri lana debekatzeko AEBetan. Horregatik galdeztzen dizut zuri, diru zuriketan aditua zaren horri: zenbat milaka milioi dolar zuritu behar dizkiezu droga trafikoaaren buruzagiei eta zenbat zigor ekonomiko pasa hankapetik, agintariak zuri negozioa ixtea erabaki dezaten?”.

2013ko martxoan egin zion galderak Elizabeth Warrenek AEBetako Gobernuaren defentsan azaldu-tako David Coheni. Grabazioa Youtuben dago ikusgai. Senatariak gero alderatu zituen droga saltzaile txikiei ezartzen zaizkien kondena gogorrek eta drogak mugitzen dituen milioiak zuritzen dituzten bankarien inpunitatea. Zergatik ote da?

Erantzuna bere aldetik emana zeukan finantzako erakundearen gardentasuna eta zor bidegabeen auditorian aspalditik ari den Eric Toussaint belgikarrak: arazoa ez da HSBC bezalako banku lapur batek ez duela aski ostu, alderantzizkoa da, sobera gizendu dira: HSBC bezalako erakundeak ezin dira zigortu “*Too Big To Fail*” direlako, porrot egiten uzteko handiegia.

Toussaintek Hirugarren Munduari Zorra Desegiteko Batzordearen (CADTM frantsesez) webgunean duela urte bete idatzitako analisiari honako titulua ipini zion: “*Les barons de la banque et de la drogue*” (Bankuen eta drogaren ugazabak). Inork ez du auzitara eraman ekonomialari belgikarra, inork ez du auzitara eraman orain artean HSBC ere. Isiltasuna nagusi.

Gakoa, Toussaintentzako, aginte politikoekiko loturetan datza. Ez da lotura teoriko bat, protesta ekintzetan demagogia kutsuz oihukatu daitekeen salaketatik harago doa. Izenabizenak jarri dizkio Toussaintek: “*Stephen Green, patron de HSBC (2003-2010) devenu ministre britannique du Commerce (2011-2013), une figure emblématique*”.

Stephen Keith Green (1948) bankari eta politikariak irudikatzen du finantzen eta politikaren artean dagoen sinbiosia. Hori gutxi balitz,

Tengri News hedabidean aurki daitekeen 2013ko argazkia: Stephen Green Britainia Handiko Gobernuaren Merkataritza ministroak —ezkerrean— bostekoa ematen dio Indonesiako Bayu Krinamurthiri. Bisita honekin Greenek bultzada eman nahi zion Munduko Merkataritza Antolakundeak Dohan egin beharreko itun berriari, hain zuzen hitzarmen horren kontrako protestak mundu osoan zabaltzen ari zirenean. Cameronekin gobernuan egon aurretik Green HSBCko lehendakari egona zen, bankuak narkotrafikatzaileen dirua garbitu zuen urteetan. Bankari kortsarioa? Kortsarioa honela definitu du Wikipediak: “Gobernu baten baimena duen itsas-lapur edo pirata da. XVI. eta XIX. mendeen artean Europako herrialde askok ‘errepresalia gutunak’ (kortsio agiria) banatu zizkieten beren kapitainei, zeinetan herrialde etsaien merkataritza ontziei eraso egiteko eta bertako zama lapurtzeko oniritzia ulertzen zen”.

gobernuko ministro izan baino lehenagotik da Ingalaterrako eliza anglikanoa apez ere. Bi liburutan eskaini ditu ikasgaiak negozioen eta etikaren arteko loturez. On da jakitea nola zerbitzatu berdin Jainkoa eta Zesar erreprotxu moralik gabe.

Gaztetan diplomazian egin zuen lan Greenek, kolonietarako ministroan. Gero McKinsey kontsultoran jardun zuen. 1982an fitxatu zuen HSBCk eta laster irabazi zituen graduak bertan. 2003an bankuaren zuzendari exekutibo izendatu zuten, 2006tik 2010era bitartean lehendakari egiteko. Urte horretan egin zuten bizi osorako senatari Lorden ganbaran *Baron Green of Hurstpierpoint* izendaturik. 2011tik 2013ra Londresko gobernuan egon da David Cameronen Merkataritza eta Berrikuntza ministro.

Drogak eta inperioa

Baina ministro izatera iritsi baino lehenagotik zegoen Stephen Green —bera buru zuen bankua— narkotrafikoaaren dirua zuritzeaz akusatua. 2005ean New Yorketik *Bloomberg* agentziak salatu zuen HSBC horretan ziharduela. 2008an AEBetako gobernuak jakinarazi zion Greeni Mexikok salatu ziela HSBCren bertako ordezkariak sartuta zegoela krimenaren dirua legezketzen. Behin eta berririo ohartarazi osten,



Stephén Greenek bere buruan pertsonifikatu du HSBC izan dena inperio britainiarrarentzako. Gaur mundu osoko 75 herrialdetan 260.000 langile eta 54 milioi bezero dauzkan Hong Kong and Shanghai Banking Corporation (HSBC) sortu zenez geroztik dago drogen nazio-arteko salerosketari lotua.

Bi gerra irabazi zizkieten britainiarrek –Washingtonen lagunduta– Txinari, bigarrena 1856-1860 artekoa, biak opioa zeukatenak sustaia. Ingelesek zanpatuz geroztik Txinak bazterketa handia nozitu du ondorengo mende eta erdiz.

Bakearen truke Txina galtzaile umiliatuak onartu behar izan zuen orduan britainiarren inperioa zen Indiatik nahi adina opio libre sartu ahal izatea. Hong Kongeko kolonia gotortu zuen Londresek eta han 1865ean opioaren salerosketan berezitutako merkataria eskoziar batek sortu zuen gaur HSBC dena.

Hong Kong Txinari itzultzerakoa, Londresean erroan zuten HSB-Cren egoitza nagusia 1993an. Baina bere historiari fidel, agintariekin berriro aurkitu dute droga trafikoa sortutako dirutzak zuritzen, truke tasen manipulazioan, interes tasen gaineko deribatuen iruzurrean, enpresa txikiak zangozasi-aseguruen iruzurrean, urtearen eta zilarren prezioak manipulatzeko... eta asteotan munduko espektakulu nagusi bihurtu den eskandaluan: zergak saihesteko iruzur masiboan.

Toussaint: “HSBC britainiarrarenak hezur-mamitzen du ‘espetsuek erortzeko handiegia’ dotrina”. Orain arte hala izan da. Berdin 2015ean? ■

azkenean 2012an 1.900 milioi dolarreko isuna jarri zioten Washingtoneko agintariekin.

Toussaintek dioenez, “Stephen Green ondo kokatuta zegoen jakiteko zer gertatzen zen Mexikon, paradisu fiskaletan, Ekialde Hurbilean eta AEBetan, zeren eta HSB-Cren agintaria nagusia izan aurretik ariua baitzen HSB-Cren Bermuda (paradisu fiskal ezaguna), Mexiko eta Ekialde Hurbileko egoitzetan”.

AEBetako agintarien mugimenduak usaina harturik, banku kortsa-riotik garaiz egin zuen jauzi lehorre- ra... Londresko gobernuaren portuan aurkiturik babesa. 2010ean izendatu zuten lord eta 2012an David Cameronen gobernuan harrapatu zuen HSB-Cri AEBetan

jarritako isunak. “Hau irakurri poli- zien nobela beltz batean eta esango zenuke idazleari eskua urrutitxo joan zaiola”, dio Toussaintek.

Gobernuko karguak gain Green azken urteotan aritu da industriako patronalaren zuzendaritzan, Londresek Joko Olinpikoen antolaketa lortzeko negoziaketan ere bai. David Cameronen ez du sekula baimendu Greeni Lorden ganbaran HSB-Cz galderarik egin dakion: Lord Greenek izugarri lan ona egin du gobernuaren barruan Britainia Handiaren esportazioak indartzeko eta nabarmenki Europar Batasuna- ren eta AEBen arteko itun berria (TTIP famatua) aurrera atera dadin. Berdin sustatzeko britainiarrek ekoiztutako armen esportazioa.





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Xabier Letona



DANI BLANCO

Badator Podemos

ALDAKETA esan nahi du Nafarroan Laura Perez Podemos-Ahal Duguko primarioetan idazkari nagusi hautatu izanak. Behintzat bere hautagaitzak orain arte horren argi adierazi duena betetzen bada (zenbaki honetako 46. orrialdean da Perezekin egindako elkarrizketa). Eta maiatzeko hauteskundeetan Podemosek inkestek iragartzen dizkioten emaitza onak lortzen baditu. Eta gai baldin bada gainera datorkion erauntsi mediatikoari aurre egiteko. Eta Estatuko Podemosek uzten badio. Eta herritarrak, soziologiak dioten gisan, orain arte agindu dutenekiko egiazki hain suminduta baldin badira. Eta UPN, PSN eta PPNk 26 parlamentario ateratzen ez badituzte. Eta...

Aldaketatik urruti dagoela oraindik Nafarroa, baina azken 30 urteotan inoiz baino gertuago ere bai, indar abertzale eta Nafarroako ezker federalistaren aliantzak azkenean emankorrak badira bederen. 1995ean PSNk, CDNk eta EAK hiruko Gobernua osatu zuten, baina *Otano auziak* hankaz gora bota zuen 1996an. 2007ko udan Nafarroa Bai eta PSNk gobernurako akordioa egina zuten, baina oraingoan PSOEk hondoratu zuen aldaketa Ferrazetik. Maiatzera begira, aurreko garaiekiko desberdintasunik handiena da aldaketa posible dela PSNrik gabe ere. Duela bizpahiru urte sinesgaitza litzatekeena gaur egun kontuan hartzeko hipotesia da. Gaitza baina posible.

Nafarroan 2.854 pertsonen parte hartu dute Podemosen primarioetan, inondik inora txantxetako ez den pertsona kopurua. Nafarroako populazioaren hiru-

koitza baino gehiago izanda, EAEko Podemoseko primarioetan parte hartutako (3.142 lagun) ia kopuru berdintsua, eta azken hau ere ez da batere txantxetako. Pentsa liteke, beraz, Nafarroan errotuago dagoela Podemos EAEn baino edo baldintzak bereziagoak direla herritarrak primario batzuetan bozka ematera animatzeko. Eta badira, bai, bereziagoak eta desberdinak, besteak beste aldaketarekiko grina hor dagoelako nafar gizarteko sektore zabal batean.

*Gipuzkoan EH Bilduk
Diputazioa eta
Donostiako Udala
salbatzeko adina?*

PODEMOSEKO primarioetan bozkatzeko moldeak piztu dezake zalantzarik, edozein herritarrek parte har dezakeelako oso modu samurrean: Internetez Podemosen izena eman –NANA edo pasaporte zenbakiarekin batera– eta listo. Podemosekoak izan gabe Laura Perezen alde botoa emandakoei buruzko zurrumurruak ez dira gutxi izan. Gerta liteke hautagaitza bat edo bestearen alde. Baina hala ere, ez da erraza ia 3.000 pertsonen bozka ematea, esan nahi du gizartean burrunba izan dela primarioen inguruan, hautagaitzei buruz zerbait ezagutzen dela, Podemosetik haragoko interesa piztu dela, eta hori bera ere bada esanguratsua. Sare sozialetan behintzat Podemosen primarioak oso presente izan dira Nafarroako hainbat gizarte sektoretan, eskuin nabarrismotik eta ezker abertzaleraino. Oraingoan ere Nafarroan

izan dira parte-hartzearen faktore pizgarri horiek eta boto kopuruetan ere islatu da.

EAEn espero zen hautagaitzak irabazi du, Roberto Uriarte bermeotarraren Euskal Hiriak. Bide batez datu azpimarragarria: hautagaitza nagusienak behatuta behintzat, bere profilaren aurkezpena zen euskaraz eta gaztelaniaz agertzen zen bakarra. Hautagaitzako orrialdea ere helebiduna, baina primarioetako programa politikoa dena erdaraz, hautagaitza denetan bezala, EAEkoak edo Nafarroakoak izan.

Europako hauteskundeetarako iazko datuen emaitzak ikusita Podemos batez ere estatuko fenomeno gisa irudikatu zen, nahiz eta Euskal Herrian ere emaitza indartsua izan zuten. Nafarroan *nabarrometroaren* emaitzak puztuak zirela esatean kontsentsu zabala egon zen –lehen indarra ematen zion–, baina joera hor dagoela argi da. EAERI begira, azken inkestetako (Eusko Barometroa, Vocento, *Gara*...) joerak lehen postuetara eramaten dute EAEn ere, Vocentoko egunkarietak Araban nagusitasuna emateraino, eta denetan lehen hiru postuetan jarritz. Hemen berdintsu, alderdiek ezin sinetsi, baina gerta litekeenaz beldur. PSERI eta Ezker Batuari eragingo lieke batez ere, baina baita Bilduri ere. Bildurekiko, aldiz, erabakigarria izan liteke Podemosek emaitza onak izatea, Euskal Hiriaren programa politikoa gauzatzen bada, aliatu garrantzitsua izan dezakeelako, EAJ, PSN eta PP moduko sistema alderdien aurrean. Gipuzkoan EH Bilduk Diputazioa eta Donostiako Udala salbatzeko adina? ■

ASTE HONETAKO Zozketa



Argiako harpidedunentzat

www.bertsozale.eus



Nafarroako bertsolari txapelketa

Finalaurrerako pertsona
batentzako bi sarrera

Martxoak 7, Berriozar - Finalurrekoak
Ordua: 17:30 Lekua: Entzun aretoa

1

www.bertsozale.eus



Nafarroako bertsolari txapelketa

Finalurrekorako pertsona
batentzako bi sarrera

Martxoak 8, Lesaka - Finalurrekoak
Ordua: 17:30 Lekua: Kultur Etxea

2



Eureka! Zientzia museoa

2 lagunentzako
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia Gipuzkoa
www.euskalmuseoa.es

3



LOS GALERNA Akelarre

5 CD opari

www.hotsak.com

4



Erlea gure sendagile

liburua

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2448. Argia)

GUIKURI

Iñigo Lasagabaster Roteta (Zumaia)

AQUARIUMA

Asier Alvarez De Eulate Mujika (Ordizia)
Jon Mikel Barandiaran Arratibel (Errenteria)
Karmele Señorena Arzadun (Donostia)
Mari Eli Ituarte Zarragoikotxea (Markina-Xemein)

EKAINBERRI

Amaia Arana Artetxe (Lemoa)
Aintzane Linaza Etxebarria (Gasteiz)
Maite Arregi Tejeria (Villabona-Amasa)

PLANETARIOA

Idoia Atxaga Mendizabal (Hernani)
Izaskun Elizburu Urkizu (Zarautz)
Josu Aldama Larena Bitoriano (Zuia)

OKATXU

Mikel Garmendia Aizpuru (Bilbo)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • guinea@argia.eus

www.argia.eus/gunea

guinea

argia



ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com